SAKANAKO ASTEKARIA • 2015eko abenduak 18, ostirala • 2. aroa • 534. zenbakia

guaixe.eus

PRES TOKIKOM

Hauteskunde orokorrak igandean

Sakanerria >> 5

Proiektuari buruzko herri galdeketa Unanun

Sakanerria >> 9

Mendizaleen eguna hartuko du Aralarrek etzi



Kirolak >> 13

Plan Estrategikorako 250.000 € bideratuko dituela iragarri du Nafarroako Gobernuak

>>9

Portlanden balorizatzeko UPrS iraungia gelditu da

>>9

Burunda mendebaldeak enplegurako proiektu pilotua hartuko du

>>3

Herriko denden aldeko deiak

>>7

Itziar Nazabal Italian saritua

>>15

Altsasu eskuz binakakoaren egoitza

>>11

Fco. Etxeberria eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Iberora bueltatuko dira, astelehenean. NAFARROAKO GOBERNUA

Iberon uhartearren bila

>>5

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.
• Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
• Balkoien eta terrazen itxitura
• Kolore guztietako mallorkinak
• Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

Dulantz Lazkoz Amillano
3 urte bete dittu etxeko txikiak, ZORIONAK!! Muxu eta besarkadak etxekoen partez.

Iñigo Otsoa Perez
ZORIONAK pottoko zure 1. urtebetetzean! Zu zara Olentzeroren opari haundiena. Eskerrik asko etortzeagatik. Muxu pila bat etxekoen partez.

Maren Azpiroz Andueza
AUPA BIZKORRA!! ZORIONAK zure 3. urtebetetzean!! Muxu pila bat denon partetik.

Sugaitz eta Intzara
ZORIONAK bikote! Oraingoan... Zazpi eta hiru urte!! Muxu pila pila bat denon partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideek: 3,50€

abenduak 18-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Christmas swing. Abenduaren 18an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Jazzy Leap eta Jazzy Leap Band.**

AhimsaLara Ribera eta Ahava taldea. Abenduaren 18an, ostiralean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Enkore. Abenduaren 18an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko plazan.

Eguberri kontzertua. Abenduaren 19an, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Musika eskolako ikasleak.**

Etxarri Aranazko abesbatza eta Abesbatza Txikia. Abenduaren 19an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko elizan.

Erkudengo Ama abesbatza. Abenduaren 19an, larunbatean, 20:45ean Altsasuko elizan.

Mc Onak. Abenduaren 19an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Lakuntzako musika eskolako gitarra ikasleak. Abenduaren 21ean, astelehenean, 17:30ean Arbizuko udaletxeko batzar gelan.

Antzerkia

Besos. Abenduaren 20an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **NUPeko antzerki taldea.**

Ipuin kontalaria

Gaua txuri bilakatzen denean. Abenduaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Birjiñe Albira.**

Amonaren ipuinak. Abenduaren 23an, asteazkenean, 18:00etan Irurtzungo liburutegian. **Patrizia Eneritz.**

Zinema

Timbuktu. Abenduaren 18an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

El clan. Abenduaren 18an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Pan, sekula betirako bidaia. Abenduaren 20an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Mendigoizale eguna Aralarren. Abenduaren 20an, igandean, 8:30ean Lakuntzatik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Otsoportillo. Abenduaren 20an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Bioitza kanpinetik. 50 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Altsasu Memoria II. Abenduaren 20ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Migel Angel Agirreren oroimenezko VIII. marrazki eta margo lehiaketa. Abenduaren 21etik ilbeltzaren 6ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Jaiotzak. Ilbeltzaren 10era arte Olatzagutiako Sakanako Belenzaleen Egoitzan. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara. Domeketan eta jai-egunetan, 13:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:30era.

Pintura

Zuzenean sortzen. Abenduaren 20an, domekan, 18:00etatik aurrera Altsasuko Haritza tabernan. **Itziar Nazabal.**

Bertso afaria Irurtzunen

Larunbatean, 21:30etik aurrera, Iratxo elkartean. Aizpea, Irurtzungo euskatzaleen topaguneak antolatutako Euskal Ekitaldiek segida bihar izanen dute. Urtero bertsolaritzarekin hutsik egiten ez duen hitzordua da bertso afaria. Hartan Irurtzunen hainbatean izan den Andoni Egañak parte hartuko du. Aldamenean Saioa Alkaiza izanen du. Aizpeakoek horrela eskarmentudun bertsolaria gazte nafarrarekin elkartuko dituzte.

Tailerrak

Album ilustratu bat sortzeko tailerra. Abenduaren 18an, ostiralean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aurretik izena eman.**

Bestelakoak

Jostailu trukaketa. Abenduaren 20an, igandean, 11:00etatik 14:00etara Uharte Arakilgo frontoian.

Lamiatutur. Abenduaren 20an, domekan, 18:00etan Olatzagutiako Akelarre ludotekan.

Puzgarriak. Abenduaren 23an, ostegunean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Burunda frontoian.

Jostailu trukea. Abenduaren 23an, ostegunean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Burunda frontoian. **Ludoteka.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 18an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Presoen dispertsioaren kontra. Abenduaren 21ean, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Sasoia.**

Iragarki taulen aurkezpen proposamenaren aurkezpena. Abenduaren 22an, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Udaleko Parte-hartze batzordea.**

Bazkide egin

Izena
Bi abizenak
Nortasun agiria
Helbidea
Herria
Telefonoa
Posta elektronikoa
Bankuko kontu zenbakia

Bazkide egiteko beharrezko datuak

Urtean 50€ren truke
Guaixe ostiralero buzoian
%10eko deskontua eskeletan
%5eko deskontua diseinu zerbitzuan
%25eko desgrabazioa errenta aitorpenean
%12ko deskontua zorion agurretan
Sariak hilabetero
85 komertziotan abantailak eta deskontuak

URDIAIN

IRIGOIENEK ARDURA BERRIA: Pilar Irigoien Ostizak ostiralaz geroztik ardura berria du Nafarroako Gobernuaren egituran: Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikako zuzendari nagusi izateari utzi dio Sodena enpresa publikoaren zuzendari-gerente berria izateko.

ezkaatza >>

» Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

Burunda mendebaldean enpleguaren inguruko proiektu pilotua indarrean jarriko da

Langabezian luze daramaten pertsonek enplegua lortu eta mantentzeko gaitasunak lantzeko proiektua Nafarroako Gobernuak sustatu du bertako eragileekin elkarlanean.

Gizarte Errealitatearen Behatokiak antolatutako jardunaldian Easi proiektu pilotua aurkeztuko du Iruñean gaur goizean. Gizarte Eskubideen Departamentuak bulkatu duen proiektu hori gizarte politikak eraberritu eta berritu nahi ditu. Horretarako, gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuaren arteko lotura estua sustatuko du. Izan ere, helburuetako bat langabezian dauden pertsonen harretarako eta aktibazioarako eredu berria diseinatzea eta probatzea da.

Proiektu pilotu hori Tuteran eta Burunda mendebaldean, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordian, jarriko da martxan. Horregatik, gaurko aurkezpenean Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko buru Francisco Javier Paz Miño izanen da. Harekin batera, Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek eta Sakanako Garapen Agentziako Aintzane Iriberri Berrostegietak Sakanako Plan Estrategikoaren berri emanen dute.

Proiektua 2016ko udan hasi eta 2019ko udan despedituko da. Martxan den bitartean Nafarroako beste herri batzuekin konparatuko dute, proiektu pilotuek esperotako emaitzak lortu eta balio duten jakiteko.

500 pertsona

Easi proiektuak berez honako izena du: gizartean sartzeko eskubidea indartzea zerbitzu integrazioaren bidez. Tutera eta Burunda mendebaldean politika sozialeko "esperimentua" eginen dute 500 pertsonekin (400 bat tuterar eta 100 bat burundar). Haiek aukeratzeko makina bat irizpide hartuko dituzte kontuan.

Gizarte bazterketa egoeran egon daitezkeen pertsona horiei gizarte zerbitzuek eta enplegu zerbitzuak prestazio integratua eskainiko diete. Horretarako, Gizartean Barneratzeko Errentaren (GBE) erreforma pilotua eginen da. Proiektuak enplegu politika aktiboen planifikaziorako mekanismo berria sortu nahi du tokiko eragile publiko eta pribatuak kide dituela. Emaitza positiboak Nafarroa guztian ezartzeko balioko lukete. Europako Batasuneko deialdi batean aurkeztu berri dute.

Departamentuak Tutera eta Burunda mendebaldea honako arrazoiengatik aukeratu ditu: iraupen luzeko langabezia tasa altuak dituztelako; pobrezia eta bazterketa arriskua handitu delako; Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzen kopurua murriztu delako; GBE hartzaileen kopurua handitzeagatik; prestakuntza eskaintzaren doikuntza falta eta gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen elkarlana aski ez izateagatik.

Aurrera eramanen dute

Gizarte Eskubideen Departamentua da proiektuaren buru. Harekin batera ariko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Tuterako Udala eta Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Parte hartuko duten beste erakundeak dira: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa; Erriberako Enpresarien Elkartea, Sakanako Enpresarien Elkartea, Gurutze Gorria, Anafe, CCOO, LAB, Eder partzuergoa eta Sakanako Garapen Agentzia. Finantziazioan lagunduko dute Nafarroako Kutxa eta La Caixa fundazioek.

Bost epeko lana

Lana bost urratsetan eginen da. Lehenik zerbitzuak integratu eginen dira. 9 hilabete emanen dituzte prestatzen eta 2 urte indarrean jartzen. Hori aurrera eramateko Burunda mendebaldean bi kudeatzaile aurreikusi dira. Parte-hartzaileei dagokionez, lehen fase pilotuan 10 burundar langabeturekin ariko dira lanean (lehen hiru hilabeteak). Proiektua hasi eta urtera, urte eta erdira eta bi urtera 30na langabetu burundar sartuko dira. Guztira 100 bat egin arte.

Ondoren, GBEren erreforma eginen da (9 hilabete prestatzen eta 2 urte indarrean jartzen). Horrek tokiko enplegu politika aktiboen planifikazioari emanen dio bidea (epe berak). Ebidentziak eraiki ondoren (9 hilabete prestatzen, 19 hilabete indarrean jartzen eta 8 ebaluatzeko), lana jakintzaren transferentziarekin despedituko da (8 hilabete prestatzeko, 20 indarrean jartzeko eta 8 ondorioak jaso eta zabaltzeko).

ERREDAKZIOAREN OHARRA >>

Eguberritako oporrak direla eta Guaixe astekariaren aurtengo azken zenbakia abenduaren 24an argitaratuko da.

astekoa

Zoila Berastegi

Eskutitz bat

Olentzero maitea,

Zer moduz zaude? Eta zure astoa? Beltxak, nire txakurrak, txakurkumeak izan zituen lehengo egunean, baina oraindik ezin izan ditut ikusi; aitak ekarri dizkidan argazkietan bakarrik. Oso politak dira. Nahi duzu bat?

Ni ongi nago. Badakizu ikastolako lagunek bidali dizkidaten marrazki guztiak horman itsasi ditudala?! Maribik, ur-poltsa txintxilikatzera etortzen den aldiro, esaten dit ikusi duen logelarik politena dela.

Zuk noizbait ikusi duzu tortilla urdina? Nik hemen bakarrik. Afaltzeko ekartzen didaten aldiro goragalea sartzen zait. Beno, eta purea dagoenean ere bai. Amatxo pixka bat haserretzen da, baina berehala pasatzen zaio. Orain hobeto dago, baina batzutan, gauetan, ni lotan nagoela uste duenean negarrez hasten da. Pena handia ematen dit amatxok. Horregatik, goragaleak izan arren, tortilla urdin zatitxo bat jaten saiatzen naiz, bera pozik jartzeko.

Aurten gauza bat bakarrik eskatu nahi dizut. Maria bigarren solairuko emakume zaharrena da, kamisoi berdea daramana eta bigotean nik buruan baino ile gehiago dituena, berehala ezagutuko duzu. Beti bere semea du buruan, baina etxetik oso urrun omen dago eta ez diote bere ama ikusten uzten. Maria gero eta okerrago dago, eta asteartea geroztik ez du hitz egiten. Begiak zabalik izan arren, lotan balego bezala dago. Horregatik, eskatu nahi dizudana da Mariaren semea bigarren solairuko 236 gelara ekartzea, denbora tartetxo batez bada ere. Medikuek diote ez dakit zer duela, baina nik badakit bere semeagatik dela. Egin ahalko duzu? Eta bide batez, pasa nire gelatik, bale? Izeba Margarik ekarritako bonboi bat emango dizut probatzeko.

Eskerrik asko Olentzero.

barrutik kanpora

Kulturak Estrategia gosaltzen du!

Momentu batez hasierako esaldian arreta jarri ezazu. Esaldia ulertzen da? (Kulturak Estrategia gosaltzen du!). Ez da esaldi erraza ulertzeko, sinplea dela dirudi, baina barne ezagutza asko gordetzen digu.

Hasi gaitezen esaldiko hitzak banan bana azaltzen. Hasteko, pentsatu "kultura" pertsona bat dela. Zu zarela! Kultura, identitatea beste modu batera esanda, pertsona baten nortasuna dela aipatuko genuke. Zu zarena! Bestalde, betidanik esan diguten moduan, "gosaria" eguneko jatordurik garrantzitsuena da. Ados egon zaitezke ala ez, baina horrela diote adituek, baita guk ere. Azkenik, proiektu edota enpresa batek etorkizun oparoa izateko, enpresa horren gakoa, bere produktu edo zerbitzuak merkaturatzeko estrategia egokian datza.

Hau da, enpresaren etorkizuna = merkaturatze estrategia.

Ondorioz, edozein pertsona, entitate, proiektu edota enpresak arrakasta izan ala ez, dituzten produktu edo zerbitzuak merkaturatzeko erabili duten estrategian oinarrituko da.

Adibidez, zein uste duzue izan daitezkeela Nafarroan azken urtetan porrot egin duten proiektu estrategikoak? Argi dago, hona batzuk jarraian: Nafarroa Arena, Nafarroako Kanala, Bicitronik, Caviar per se, Los Arcoseko Zirkuitua…

Ez gara baloratzen hasiko proiektu hauek eraiki edota sortu behar ziren ala ez (oso kritikagarria delako). Gure asmoa, merkaturatze estrategia egokia izan den ala ez jakiteko datu batzuk ematea besterik ez da:

Caviar per se proiektura, adibidez, 8,7 milioi euro bideratu ziren eta enpresa itxi berri da. Beraz, estrategiak porrot egin du.

Nafarroa Arena eraikitzeko, 58,8 milioi euro gastatu ziren eta oraindik bere etorkizuna zein estrategia garatu gabe dago.

Nafarroako Kanalak, "Canasa", 2015eko urte amaieran 10,4 milioi euro galtzea aurreikusten du. Estrategia porrotera bidean doa.

Kulturak Estrategia gosaltzen du!

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Elikadura zahartze prozesuan

Egiaztatu da nagusien osasuna, autonomia eta bizi kalitatea hobetzeko nahitaezkoa dela elikatze egoki bati eustea. Helburu hau ez bada lortzen, pisua galtzea, elikadura gabeziak eta malnutrizioa azaltzen dira. Ezgaitasunik gabeko zahartze prozesu bat lortzeko eragin handienetakoa duten bi jarduerak ondokoak dira: ariketa fisikoa eta elikadura.

Janariak bere itxuragatik, zaporeagatik, usainagatik eta testuragatik gogobetetzen gaitu. Sentsazio hauek adinean gora goazela aldatzen doaz. Zapore gozo, mikatz eta gaziak intentsitate txikiagoarekin sumatzen ditugu; gozoa da intentsitate gutxien galtzen duena, gazia gehien galtzen duena. Usaintzeko gaitasunak ere behera egiten du, eta hau izan daiteke jakiengatik interesa galtzearen beste arrazoietako bat.

Hortz piezak faltan izateak, gaizki egokitutako protesiek edo aho eta hortzen higiene txarrak jaterakoan arazoak sortzen dituzte. Ikusmena galtzeak, jakiak irensteko gaitasunaren aldaketak edo mugitze arazoek pisu galtzea bultzatu dezakete, nahiz eta jateko gogoa galduta ez izan.

Jateko gogoa galtzeak arrazoi askorekin dauka zerikusia, hala nola, 4 botika baino gehiago hartzearekin, edo gatza eta gantza gutxitzeak sortu dezakeen jakienganako monotonia eta desinteresarekin. Dementzia daukaten pertsonak jaten ari direnean arreta galtzen dute, jaten ari denak daukan itxura, zaporea edo usaina sentitzeko arazoak dituzte, jakia ez dute jaki bezala igartzen. Jatearen beraren ekintza aurrera eramateko ere zailtasunak dituzte, eta batzuetan egiteari uko egiten diote. Depresioa, antsietatea edo gaixotasun psikiatrikoak dituztenek gaixotasunek berak jatean eragiten dituzten aldaketak pairatzen dituzte.

Gizartearengandik isolatzeak, gertuko senideen galerek (janaria prestatzen duena bada, are gehiago), arazo ekonomikoek, jakiak erosteko zailtasunek, etxe aldaketek eta bizikidetza arazoek elikadura txar bat eragin dezakete.

Josefina Arregui Klinika

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

KALITATEAREN DIPLOMA ZELANDI ESKOLARENDAKO: Hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendozak ikastetxe publikoetan Kalitatea sistema ezartzeagatik diplomak banatu ditu gaur. Aurreko ikasturtean ebaluazio positiboa izateagatik Altsasuko Zelandi eskolak tarteko maila adierazten duen Kalitatearekin Konpromisoa zigilua eskuratu du.

sakanerria >>

» Uharte Arakil

Hiru uhartearren bila Iberon

Aranzadi Zientzia Elkartea 1936an fusilatutako 25 gorpu topatzen saiatzen ari da Iberoko Zurbau parajean. Abenduko lehen asteburuan han izan ziren ikerlariak indusketa egiten eta hari segida heldu den astean emanen diote, astelehenetik asteazkenera. Paraje hartan hil zituztenen artean hiru uhartear leudeke: Silverio Astiz Lakuntza eta Silverio Astiz Ezkurdia aita-semeak eta Victor Martiarena Irañeta.

Oltza Zendeako alkate Moises Garjonek azaldu digunez, 1978an dermio hartan egindako indusketan Larragako herritarrek 21 pertsonen buru-hezurrak atera zituzten, hezurrak han utziz. Garjonek zehaztu digunez, "aurreneko asteburuan lau edo bost hezurdura oso eta biren zatiak atera zituzten. Beste 20 bat gorpu gehiago ateratzea espero da".

Gorpuak hobitik ateratzeko lanak Nafarroako Gobernuak emandako laguntzen barnean egiten ari dira. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibarrek indusketa lanak bisitatu zituzten. Estreinako aldia zen Nafarroako Gobernuko kideek halako bat bisitatzen zutena.

Paco Etxeberria forentseak adierazi duenez, gorpu guztiak ezin dira beti topatu edo identifikatu. "Ezingo ditugu guztiak aurkitu, baina berreskuratzen den gorpu oro guztiona da", azaldu du. Gorpuak hobitik ateratzeko lanetan, erakundeek, Gobernuak eta udalak, erakutsitako "sentsibilitatea eta inplikazioa" eskertu ditu.

Indusketa gunearen ikuspegia. NAFARROAKO GOBERNUA

Uhartearrak

Silverio Astiz Lakuntza 1877ko garagartzaroaren 20an jaio zen. Ramon eta Gregoriaren semea, Nicolasa Ezkurdia Garziandiarekin ezkondua zegoen eta seme bat zuen. Nekazaria eta UGTko kidea, Arakilgo alkatea izan zen 1931n. 59 urte zituela, atxilotu eta espetxeratu zuten. 1936ko lastailaren 28an fusilatu zuten, Iberon.

Silverio eta Nicolasaren semea, Silverio Astiz Ezkurdia, 1915eko garagarrilaren 20an jaio zen. UGTko kidea zelako atxilotu eta espetxeratu zuten. 21 urte zituela hil zuten, aitarekin batera, 1936ko lastailaren 28an fusilatu zituzten, Iberon.

Victor Martiarena Irañeta UGTko kidea zen. 26 urte zituela atxilotu eta espetxeratu egin zuten. Iberon erailtzeko atera zuten espetxetik.

» Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak saria jaso du

Altsasuko, Olatzagutiako eta Ziordiako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparraren eskutik Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Saria jaso zuen ostiralean. Gobernuak eta Tomás y Lydia Recari García fundazioa dira saria ematen duten erakundeak. Mankomunitateko koordinatzaile Arantxa Erbitik jaso zuen saria.

Pertsona erabiltzaileentzako arreta mailako saria jaso du Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, SEI elkartearekin partekatu duena. *Gure burua zaintzen ikas dezagun besteak zaintzeko* izeneko proiektuagatik jaso dute burundarrek saria.

Kohesio sozialaren zaindari eta bermatzaile diren kolektibo ijitoportugaldarreko emakumeendako da programa saritua. Taldeak higiene-ohiturei eta bizi osasungarriko ohiturak sustatzeari (elikaduran eta ariketa fisikoan oinarrituta) buruzko saioetan parte hartu dute, harreman sozial positibo eta osasungarrien tailer batean eta igeriketako ikastaro batean. Helburua da, informazioaren eta prestakuntzaren bidez, pertsonek beren zaintza, harreman eta jarduerei buruz iritzia eman eta erabaki dezaten, bizitza askatasun handiagoarekin kudeatuz.

Arantxa Erbitik Migel Laparraren eskutik jaso zuen saria joan den ostiralean. NAFARROAKO GOBERNUA

» SAKANA

Bozkatzera deitu dute alderdiek

Hauteskunde orokorretan botoa emateko aukera izango da igandean 9:00etatik 20:00etara

Hauteskunde orokorrak igandean izanen dira. Espainiako Kongresurako eta Senaturako ordezkariak aukeratuko dira. Azken egunotan hauteskunde kanpainan murgilduta egon diren alderdiek eta koalizioek igandean bozkatzera joateko deia egin dute. Hautestontziak 9:00etatik 20:00etara egonen dira zabalik, norberak erroldatuta dagoen tokian botoa eman dezan. Ondoren hasiko da boto zenbaketa. Guaixek alderdi eta koalizio garrantzitsuenei on-line elkarrizketak egiteko gonbitea egin die. Podemos Ahal Duguko Eduardo Santos, Geroa Baiko Bixente Serrano eta EH Bilduko Bakartxo Ruiz egon dira gure irakurleen galderak erantzuten eta, gaur, 12:00etan, UPN-PPko Cristina Sanz hautagaia pasako da gure bulegoetatik www.guaixe.eus-eko galderak erantzutera.

Altsasu

Txirinbuloko suteko kalte-ordaina haur eskola berrirako

Udalak erabaki hori astelehenean hartu zuen. Lanak egin ahal izateko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ezinbestekoa litzateke

Sutearen ondoren Zelanditik Intxostiapuntara pasa da eskola, behin behinean.

Irailaren 3an sute batek Txirinbulo haur eskola txikitu zuen. Aseguru etxeak Altsasuko Udalari 342.793,51 euro eman dizkio. Udalak diru horretatik 28.714,64 euro suteak Zelandi eskola publikoan sortutako kalteen konponketara bideratu ditu eta beste 20.808,86 euro Intxostiapunta gazte gunean haur eskola egokitzeko lanetara. Altsasuko Udalak gelditzen diren 258.270,01 euroak haur eskola berriaren eraikuntzara bideratzea erabaki zuen astelehenean. Lan horiek aurrera egin ahal izateko Nafarroako Gobernuaren milioi bat euro inguruko dirulaguntza beharko litzateke.

43 haur

Horiek dira Txirinbulon daudenak. Haien gurasoek Altsasuk haur eskola publikoa izan dezan sinadura bilketa hasi dute change.org web plataformaren eta taberna eta dendetan banatutako paperen bidez. 1.800 bat sinadura jasoak dituzte dagoeneko. Sinadurekin Nafarroako Gobernuari heldu den urteko aurrekontuetan haur eskola eraikitzeko diru-saila jar dezala eskatzen dute. Gogorarazi dutenez, haur eskolak 35 urte darama batetik bestera eta haien ustez "baldintza egokiak dituen kokapen finko bat izateko garaia bada; jangela zerbitzua eta ordutegi zabala eskain ditzan". Zerbitzuak haurren garapen integralerako eta lanaren eta familiabizitzaren kontziliaziorako ezinbestekoa dela ere azpimarratu dute.

Uharte Arakil

Frontoia jostailuen truke tokia bihurtuko da

Igandean, 11:00etatik 14:00etara, izanen da. Haurrek jolasteko jolas kooperatiboak izanen dira ere

Erabili ez eta egoera onean dauden jostailuak dituzte etxean Uharte Arakilgo haurrek. Baita haiek beste jostailu bategatik trukatzeko aukera ere. Horretarako, etxean duten jostailu hori haur txokora eraman dezakete gaur, 17:00etatik 19:00etara. Hala egin dute dagoeneko hainbat haurrek herenegundik. Jostailua ematerakoan gorde beharreko txartela jasotzen dute haurrek. Bakarra, jostailu asko eraman arren.

Txartel hori frontoian eginen den jostailuen truke azokan erakusgai dagoen beste jostailu bategatik ordezkatzeko baliokodu. Horretaz aparte, frontoian haurrek joko kooperatibo eta ohiko jokoekin jolasteko aukera izanen dute. Truke azoka bukatzean, soberan gelditzen diren jostailuak Senegalgo gobernuz kanpoko erakunde bati emanen zaizkie. Guztia antolatzen Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Uharteko gurasoak eta Uharte Arakilgo Udala daude.

Altsasu

Intxostiapuntako hiru tailerretan plaza libreak daude

Informazioa nahi duenak 948 564 785 telefonora hots egin edo gazteria@altsasu.net e-postara idatzi dezake

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak jakinarazi duenez, argazkilaritza (eszenaratze eta ukituak ematea), antzerki musikala eta ile-apainketa tailerretan izena eman daiteke oraindik. Lehena ilbeltzaren 13an hasiko da eta asteazkenero, 17:30era eta 19:30era, izanen da Intxostiapunta gazte gunean. Hiru hilabeteko ikastaroa da eta 30 euro ordainduko da.

Antzerki musikal tailerra ere ilbeltzean hasiko da eta gazte gunean, ostiralero, 18:30etik 19:30era izanen da. Hiru hilerako izen emateak 25 euro balio ditu. Azkenik, ile-apainketa tailerra abenduaren 12an hasi zen eta domekan izanen du segida, 18:00etatik 20:00ak arte; 3,5 euro balio du.

Lakuntza

Unesco katedrak sarituak. Lakuntzarrek Txingurriyerekin garatu dute asmoa.

NUPetik saria Lakuntzara

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko Unesco Katedrak deitutako Ekintzailetza Kolektiboko Ideia Hoberenentzako Sarietan akzesita lortu dute Izaskun Andueza Imirizaldu (Gizarte Laneko Saila) eta Martin Larraza Kintana (Enpresen Kudeaketa Saila) NUPeko irakasleek. Lakuntzan ekonomia sozialeko enpresa bat sortzeko ideiagatik jaso dute saria. Enpresa horrek hainbat jatorritako emakumeei eman die lana etxeko janaria prestatzeko xedez. +www.guaixe.eus

Altsasu



Cenor Ramosen erakusleihoa, finalista

Tresna elektrikoen eta elektronikoen birziklatzeari buruzko erakusleihoen lehiaketaren bigarren edizioan 13 dendek parte hartu dute. Saria Carcastilloko denda batek eskuratu du eta zortzi finalisten artean Altsasuko Cenor Ramos gelditu zen. Sariak astearte an eman zituzten.

Nafarroako Gobernuaren ekimenez antolatu da lehiaketa eta bere helburua da dendak eta nafarrak hondakinen gaikako bilketan inplikatzea. Erakusleiho lehiaketan parte hartuz dendek "hondakin birziklatzearen garrantzia zabaltzen dute, salmenta puntuak kudeaketa egokirako estrategikoak baitira, han hondakin elektriko eta elektronikoak jaso baitaitezke". Dendekin batera, Sakanako Mankomunitateak garbi gune ibiltariaren bidez halako hondakinak jasotzen ditu. +www.guaixe.eus

Vegas eta lagunak akaberan, pozik.

Bizi beharreko esperientzia

Erkuden Ruiz Barroso

Bea Vegasek Guaixeko Udako argazki lehiaketaren publikoaren saria irabazi zuen. Way Out Room Scape esperientzian sarrerak irabazi zituen. Vegas sei lagunekin joan zen abentura bizitzera eta oso gustura egon zirela dio.

Gela batean sartzen zaituzte eta 60 minututan alde egin behar duzu. Horretarako hainbat pista agertzen dira bidean, eta zenbait giltzarri ireki behar dira. "Hobe da asko ez kontatzea, bizi beharreko esperientzia bat da". Vegasek ez zuen Way Out Room Scape aurretik ezagutzen. Web gunean informazio bila joan zen baina ez zuen asko aurkitu. "Ez zegoen informazio asko. Baina hobe. Sorpresa handia hartu genuen".

Vegas eta haren lagunak ez ziren gelatik 60 minututan atera. Baina esperientzia errepikatuko dute. "Oso gustura egon ginen. Guztiz gomendagarria da". Esperientziaz guztiz disfrutatzeko Vegasek jende ezagunarekin joatea gomendatzen du. Hiru edo lau pertsonako taldearekin jolastea hobe dela dio.

Ziordia

Giro ederra Santa Luzia egunean

Igandean festa giro ederra izan zen Ziordian, Santa Luzia eguna zela eta. Jubilatu elkarteko eta gaztetxeko bazkarien ondoren, Macrearen bakarrizketak tripa jaisten lagundu zien ziordiarrei eta poteo animatua izan zen herrian, trikitilariak lagun. Herrian bizi den musikari baten taldeak ere gaztetxean kontzertua eskaini zuen iluntzean.

Gaztetxeko herri bazkarian makina bat ziordiar elkartu ziren. UTZITAKOA

SAKANA

Ikastolek Satrustegiri aitortza

Herrialdeko lehen ikastolaren 50. urteurrena ospatzen ari da Nafarroako Ikastolen Elkartea (NIE). Hori dela eta, Nafarroako Ikastolen sorreran ezinbesteko erreferente izan ziren lau laguni NIEk saria eman zien atzo, Iruñean. Jorge Cortes-Izal, Jesus Atxa eta Carlos Garaikoetxearekin batera saria jaso zutenak Jose Mari Satrustegi arbazuarraren senideak izan ziren.

» Altsasu

Udalak herriko dendei babesa azaldu die

Nafarroako Gobernuak tokiko komertzioa sustatzeko kanpaina bere egin du udalak eta Iortia kultur guneko gaurkotasunezko filemen emanaldien aurretik spota proiektatzen ari da abenduan

Javier Ollo Martinez alkateak "denda txikien defentsa" egin du. Haren ustez, "kalitatezko zerbitzua goraipatu beharrean gaude, baita gizarteari eskaintzen dioten ongizatea ere". Alkateak denda eta dendari txikiak Altsasuri bizia emateko "ezinbestekoak" direla azpimarratu zuen, eta nabarmendu zuen: "ekonomikoki ezinbesteko agenteak dira eta sozialki komunitate osoari goraipatu beharreko zerbitzu bat ematen diote". Hori dela eta, Altsasuko Dendari Elkartearekin elkarlanean aritzeko eta hura babesteko borondatea azaldu zuen. Arrazoi horregatik hasi da udala gobernuaren publizitate spota zineman eskaintzen.

Horregatik, Ollok bere egin du Nafarroako Gobernuaren tokiko denden aldeko kanpainako leloa: *denda txikiak, pertsona handiak*. Eta kanpainaren aurkezpenean esandakoa gogorarazi zuen: denda txikiek "kalitatezko enplegua sortzen dute eta hurbileko zerbitzu bat eskaintzen dute".

Dendariak

Altsasuko Dendari Elkarteko buru (ADE) Ibone Prietok nabarmendu zuen "estreinako aldia dela ADE aintzat hartzen dela", horregatik alkateari esker ona azaldu zion. "Eskatzen hasi eta zenbait ekimenetan babesa eman digu". Nafarroako Gobernuaren bideoaz Prietok esan zuenez, "hedabideetako ohiko zabalkundeaz aparte ez zen herrietatik pasa behar. Udalaren ekimenez Iortian ikusiko da. Gauden egoeran halako laguntza eskertzekoa da".

Javier Ollo alkatea eta ADEko Ibone Prieto eta Estibalz Asensio.

ADEko kideek argi utzi nahi izan zuten dendariek saltzeaz eta deskontuak egiteaz aparte, "kalea egiten dugu. Pentsa zer gertatuko litzatekeen dendak eta tabernak asteburu batean itxiko balute. Herrian dendak behar dira". Prietok adierazi zuenez, "jende asko konturatzen ez bada edo ez badute baloratzen ere, herria dinamizatzen ari gara; ekimen ugari antolatzen ditugu edo babesa ematen diegu". Horrek "ahalegin handia eta diru asko" kostatzen zaiela eta "laguntzak eskasak direla" aitortu zuen Prietok. ADEk gaur egun 34 kide ditu. Nahi duten dendariek kide egiteko aukera dute.

+www.guaixe.eus

» Etxarri Aranatz

Etxarrin erosita, askoz hobeki

Etxarri Aranazko Udalak herriko dendekin eta ostalariekin batera, eguberrietarako kanpaina martxan jarri du. Haren helburua bertako kontsumoa sustatzea da. Eneka Maiz Ulaiar alkateak esan diguznez, "gure herriko dendak eta ostatuak herriaren eta herritarren parte dira eta etxarriarren arteko harreman sozialak errazten dituzte". Horrek, azken finean, "gure komunitatea indartzea dakar".

Bestalde, kanpainarekin etxarriarrak gaztigatu nahi dituzte, herriko denda eta tabernek gure inguruari eta gure espazio publikoei bizitasuna ematen dietela. "Gure sozio-ekonomia indartzen dute" ere nabarmendu du alkateak. Herriko denda eta tabernak "gertukoak eta konfiantzazkoak dira" azpimarratu ondoren, alkateak herritarrak eguberrietan ere Etxarrin erostera, kontsumitzera eta gozatzera animatu ditu.

SAKANA

40 urdaiazpiko banatu ditu Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Amaitu da Azarokotea kanpaina. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak bukaerako sari banaketa egin zuen iragan larunbatean Altsasuko Foru plazan. Joan zen urtean makina bat produktuz osaturiko saski bat zozketatu ondotik, aurten 40 urdaiazpiko banatu ditu. Modu horretan esker ona erakutsi nahi izan diete kanpainak iraun bitartean elkarteko kide diren 47 dendetan erosketak egin dituzten pertsonei. "Zuengandik [bezeroengandik] gertu gaude, eta sari banaketa honen bidez zuen kolaborazioa eskertu nahi dugu", adierazi zuten dendarien asoziazioko kideek larunbateko ekitaldian.

Sakandarrek eguberri aurreko erosketak ibarreko dendetan egitea da Azarokotearen xedea. Kanpaina horrek aurtengoa bigarren edizioa izan du (bi urtez Altsasuko dendariek antolatu zuten, eta azken bi urteetan Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak atondu du). Dendarien asoziazioko lehendakari Tania Ganboa pozik agertu zen jendeak emandako erantzunarekin: "Oso polita izan da. Jende pila bat animatu da. Saria ez da bakarra izan, 40 urdaiazpiko zozketatu dira, eta horrek zeresana izan du jendeak kanpaina honekiko izan duen jarreran. Balorazioa, oro har, oso ona da".

Haatik, Ganboak aitortu zuen oraindik lan handia dutela egiteke, batik bat jendea sentsibilizatzeri dagokionez. Bere aburuz, erosketak Sakanako dendetan eginda ibarreko ekonomia hauspotu egiten da, baina sakandar asko oraindik ez dira horretaz jakitun. "Une honetan zer egin ikertzen ari gara. Garbi daukaguna da instituzioen aldetik inplikazio gehiago izatea funtsezkoa izango dela sakandarrak sentsibilizatzeko", gaineratu zuen.

Zortedun bakarretik berrogei zortedunera

Iragan urteko Azarokoteak sari bakarra (hainbat ekoizkinez osaturiko otarrea) izan zuenez, irabazlea ere bakarra izan zen: Elena Lizarraga arbizuarra. Aurten, aitzitik, estrategia aldaketa izan da, saria askoz ere ugariagoa izan baita. Berrogei urdaiazpiko, eta beste horrenbeste zortedun izan dira. Hauek izan dira sarituak: Marce Lizarraga, Asun Bergera, Josu Crespo, Marian Lahidalga, Dina Reparaz, Jone Peña, Amaia Lazkoz, Elena Parsghiv, Paco Mateo, Tamara Pedro, Jose Antonio Larraza, Oihana Agirre, Escolastica Loiola, Olatz Morras, Isabel Rodríguez, Ezequiela Diez, Rosa Mari Saez de Adana, Amaiur Bengoetxea, Sara Arakama, Saioa Satrustegui, Mª Mercedes Perez, Mª Teresa Chaparro, Fausti Fresneda, Maria Martinez, Carmen Ojer, Puri Alzelai, Esperanza Martin, Loli Roldan, Roman Vazquez, Ainara Zeberio, Jose Antonio Etxarri, Maite Salgado, Gorka Urteaga, Maribi Maguregi, Nerea Martinez, Juani Ganboa, Roberto Bueno, Nuria Galarza, Conchi Vicente eta Edurne Ollo.

Nonerabili

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

PATXI GALARZA
IRURTZUN
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA
ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA
ETXARRI ARANATZ
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA
IRURTZUN
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

KALUXA TABERNA
URDIAIN
Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupitoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

SAKANA

Ekintzailetza, lehen eskutik

Lanbide Heziketako ikasleek Sakanako ekintzaileen esperientziak ezagutu zituzten

Cederna Garalurrek "Esperientziak, lehen eskutik" tailerra antolatu zuen azaroaren 18an Altsasuko Lanbide Heziketako ikasleendako. Helburua, ikasleei Sakanan euren enpresa proiektuak aurrera eraman dituzten esperientzia errealak ezagutaraztea zen. Ekintzaile hauek Cederna-Garalurren ekintzailetza babesteko zerbitzutik pasa izan dira, eta euren enpresa sortzeko egin behar izan duten prozesu guztia azaldu zieten tailerrean parte hartu zuten 20 ikasleei.

Cederna Garalur Navarra Emprende Sareko bazkidea da. Ikasleekin egindako tailerrean, sare hori ezagutzera emateaz aparte, Cedernak ekintzaileei babesa emateko eta laguntzeko dituen zerbitzuak azaldu zizkien ikasleei. Bukatzeko, aurten euren enpresak Altsasun martxan jarri dituzten bi sakandarren esperientzia gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Iban Sobredok iturgintza enpresa sortu du eta Javier Fernandez Lanbide Heziketako ikasle ohiak, zurgintza metalikoko enpresa baten ardura hartu berri du. Euren lanpostua sortzea zergatik erabaki zuten, prozesutik zer izan den konplikatuena, autoenplegutzak dituen alde positiboak eta lortutako helburuak aipatu zizkieten ikasleei.

Tailer hauekin ekintzailetza enplegua sortzeko alternatiba bat dela irakatsi nahi zaie ikasleei eta ekintzailetza sustatzeko dauden zerbitzu eta errekurtsoen berri eman nahi zaie. Ekintzailetzak zailtasunak badituela, baina abantailak ere bai.

Ikasleek ekintzaileen lekukotasunen berri jaso zuten. UTZITAKOA

Soziolinguistika inkestarekin bueltaka

Iparraldeko Euskara Mankomunitateko, Baztango Udaleko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko, Malerrekako Mankomunitateko eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuek hurrengo urteetako plangintzak egiteko oinarria izan dezaten, Siadeco enpresa Nafarroako Mendialdeko 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek eta haien gurasoek euskararekiko jarrera ikertzen ari da. Horren berri eman eta salaketa egin zuen aurreko ostegunean Diario de Navarra egunkariak. Eta atzetik erreakzio soka etorri da. Ostegunean bertan inkestaren kudeaketa administratiboa egin duen Sakanako Mankomunitateko buru Aitor Karasatorre Muguruzak inkesta egiteko ohiko prozedura erabili dela azaldu zuen.

Nafarroako Gobernuak gogora ekarri zuen aurreko gobernuak onartutako diru-laguntza deialdi batekin egin dela soziolinguistika inkesta. Aldi berean, argitu zuen aipatu erakundeek sustatutako ikerketa dela eta haiek egin zutela deialdia eta ikastetxeak jakinaren gainean jarri. Ikastetxeek bere gelatan inkestak egiteko baimena eman edo ez erabaki dezaketela gaineratu zuen. Azkenik, Nafarroako Gobernuak "arduraz" jokatzeko eta "hezkuntza moduko gai sentibera politikoki eta alderdikoiki ez erabiltzeko" deia egin zuen.

Iritziak

PSNk inkestaren gaia Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordera eraman zuen astelehenean. Sozialistek Nafarroako Gobernuari eskatu nahi zioten inkestari buruzko "ikerketa sakona" egiteko, "arduradunak identifikatuz eta halakorik berriro ez errepikatzeko neurriak proposatzeko". Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta I-Eren botoekin atzera bota zen eskaera. Gainontzeko hiru alderdiek alde bozkatu zuten. Santos Cerdan eledun sozialistak gobernuari eta hari eusten dioten lau alderdiei "Sakanako eskola-inkestaren ardurak argitu nahi ez izatea" leporatu die.

PPko Ana Beltran Villalbak gaia Parlamentura eramanen du. Bere kide Pablo Zalbak Bilduri "ikastetxeak politikoki doktrinatzeko erabiltzea" leporatu zion. Hezkuntza Departamentua "jokabide sektarioaren" arduradun ere egin zuen.

UPNk, bestalde, Mank-en "dirulaguntzen erabilera okerra" salatu zuen; "euskararen sustapenerako zen, ez asmatutako Euskal Herria bat eraikitzeko, abertzaleek hezkuntzarekin egiten duten moduan". UPNekoen ustez, euskara sustatzeko ekimenek "elkarbizitza errespetatu eta sustatzeko balio behar dute".

Soziolinguistika inkestarekin ikasleei "galdera politikoak" egin zaizkiela salatu zuten erregionalistek, "hizkuntza eta identitatea lotzen zituzten galderak egin baitziren". UPNk ardura baldintza plegua onartu zuten erakundeen bizkar utzi zuen. Aldi berean, erregionalistek gobernuari eskatu diote diru-laguntza ematea berrazter dezala.

Geroa Baitik UPNri zuzendu zitzaizkion "hezkuntza era alderdikoian erabiltzeari uzteko" eskatuz. Koaliziotik azpimarratu zutenez, "milaka haurrei hartzen duen zerbitzu bat, hezkuntza, ezin da arma gisa erabiltzen segitu". UPNren gobernuak diruz lagundutako inkesta zela gogorarazi ondoren, Geroa Baitik erregionalistei "hezkuntza publiko eta kalitatezkoaren alde positiboan lan egiteko" gonbitea luzatu zieten.

Pentsiodun eta jubilatuak eskubideen defentsan

Pentsio duin eta publikoak; osasungintza publikoa eta kalitatezkoa; berrordainketarik ez eta gizarte zerbitzuek sendagai guztien ordainketa bermatzeko eskaera; mendekotasuna duten pertsonendako beharrezko baliabideak; zahar-etxe publikoak eta laguntza zerbitzu publiko eta humanizatuak. Horiek guztiak aldarrikatu zituzten Altsasuko azokan, asteazkenean. Sasoia, Nafarroako jubilatuen elkarteak deitutako kontzentrazioan 30 bat pertsona elkartu ziren.

Eskubideen defentsarekin batera Mariano Rajoyren gobernuak pentsioen funtsetik udan 3.750 milioi euro eta orain 7.750 milioi euro atera dituela salatu zuten. "Gure pentsio publikoak PPren harrapakeriatik defendatzera" deitu dute. Bestetik jakinarazi zuten eurak kide diren Nafarroako Adinekoen Koordinadora Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bildu dela pentsiodunen eta jubilatuen euren eskubideak eta aldarrikapenak jakinarazteko.

Sakanatik hasi da harria mugitzen

Sakanako Sare dinamikak ilbeltzaren 9an Bilbon eta Baionan eginen diren manifestaldietara joateko deialdia egin du, ibarreko "desafioa" gainditu ondoren. Autobusez joan nahi duenak ohiko tokitan eman dezake izena

Makina bat sakandar elkartu zituen Sarek larunbatean Etxarrikofrontoian eta "harri erraldoi bat" mugitzea lortu zuten. Desafioa beteta, Sareko kideek dinamikak ilbeltzaren 9rako *harriak mugi daitezen* lelopean deitu dituen manifestazioetan parte hartzeko deitu zuen.

Saretik azaldu dutenez, "alferrikakoa da orain eztabaidatzen hastea noraino ailegatu nahi dugun bidean, harriak mugitzen ez badira, ez baitugu oso urruti iritsi behar". Harria mugitzeko "prest gauden guztion artean ere ez dugula nahikoa indar denak mugitzeko aldi berean; eta, beraz, helburu lorgarrienetatik hasi eta larrienak kentzeari eman behar diogu lehentasuna". Bautista Etxia plataforma horren adibide gisa jarri zuten: "sektore anitzetara iritsiz oso pentsamolde ezberdineko tiratzaileen indarrak bildu zituen eta. Bautista etxera ekartzea lortu genuen".

Gaixotasun larria duten presoen zerrenda luzatzen ari dela eta "horietako batzuk kaleratzea hil ala biziko kontua" dela gaztigatu zuten Saretik. "Espetxe politika aldatzeko eta sakabanaketa amaitzeko inflexio puntu batean gaude. Kalean egoteko garaia da". Horregatik, Bilbora joateko deia luzatu zuen Sarek: dispertsioarekin bukatzeko, gaixo larri dauden presoak etxeratzeko, baldintzak betetzen dituztenak kaleratzeko eta zigorrak betetzeari buruzko Europako legedia aplikatzeko.

Zama doinuz arindu

Sarek eta Etxerat-ek elkartasun jaialdia antolatu dute ilbeltzaren 10erako, 18:00etan eta 20:00etan. Sarrerak 10 eurotan Etxarriko udaletxeko bulegoan, online bidez www.etxarriaranatz.eus eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan daude salgai.

Martinez, berriro, auzi bidean

Donostiako aske gunean atxilotu, epaitu eta absolbitua izan ondoren fiskaltzak helegitea aurkeztu du

Donostiako Justizia Jauregian Edurne Martinez Arreseren absoluzio epaiari aurkeztutako helegitea aztertzen hasi ziren herenegun. Izan ere, epaia behin betikoa izan baino bi egun lehenago fiskaltzak helegitea aurkeztu zuen, Martinezi desobedientzia delitua egotziz. Epaileek fiskaltzaren helegitea, apelazioa eta epaia bera aztertu beharko dute eta ilbeltzaren hasierarako albisteren bat izatea espero da.

Horixe jakinarazi zuen Martinezi babesa azaltzeko sortua den Erdurnerekin bat dinamikak. Bere kideek azaldu dutenez, "Edurnek eta abokatuak epaiketan aurkeztutako bideoak Ertzaintzaren gezurrak agerian utzi zituen. Horrek hedabideetan zeresan bortitza sortu zuen eta bideoak EAEko Segurtasun Saila eta Ertzaintza alarman jarri zituen". Dinamikako kideek "alarma" horren atzean ikusi dute helegitea aurkezteko arrazoia.

Dinamikatik adierazi dutenez, "helegiteak oinarri sendorik ez duen arren, Martinez berriro arriskuan utzi du, fiskaltzak zigorra igotzea eskatu baitu". Aldi berean, gaztigatu dute gazte altsasuarra 15 hilabeteko espetxe zigorrera zigortua izateko aukera dagoela. Horregatik, altsasuarrei "erne" egoteko eskatu die, "behar izanez gero mobilizazio berriak deituko baitira".

Unanu

Galdeketa hondakinen kudeaketa proiektuaz

Ilbeltzaren 24an izanen da, 11:30etik 14:30era

Hala erabaki zuten unanuarrek igandean egindako batzarrean. Unanuko untxi granjaren ondoan eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko instalazio gune bat jartzeko proiektua dago. Batzarrean unanuarrek proiektuaren kokapenarekin kezka azaldu zuten. Izan ere, zarata, hautsa, amiantoa moduko produktu kutsakorrak nola tratatuko dituzten, gertu dagoen errekari nola eraginen dion eta bestelako kezkak agertu ziren batzarrean.
Proiektua bera zalantzan jarri gabe, industrialde batean hobe ikusten dute. Horregatik, unanuarrendako kokapen hori egokia den edo ez argitzeko herri galdeketa eginen da ilbeltzaren 24an Unanun. Alde, kontra edo txuri izanen dira aukerak, bozka ez ematekoarekin batera.

SAKANA

Gobernuak Plan Estrategikorako 250.000 euro aurreikusi ditu

Manu Aierdi Ekonomia Lehendakari-ordeak Nafarroako Parlamentuan jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuaren 2016ko aurrekontuetan Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) garatzeko 250.000 euro bideratuko dira. Aierdi jakinarazi duenez, Sakanako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak heldu den asteazkenean elkartuko dira. Bilera horretan SPE garatzeko hitzarmena izanen dute hizpide. Han jasotako akzioak zehaztu, neurgailuak ezarri eta gobernantza eredua erabakiko dute. Aierdik aurreratu duenez, bi aldeak proposamenak trukatzen ari dira. Sakanako eragileek SPE garatzeko 7 milioi euro inguru beharko lituzkete 2020ra arte. Heldu den urterako 600.000 euro nahi lituzkete.

Sakanako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak azaroan elkartu zirenekoa.

PSNko Guzman Migel Garmendia Perezek Sakanako ekonomiaren gaia Nafarroako Parlamentura eraman du eta hari erantzunez jakinarazi du Aierdik bilerarena. Garmendiak Gobernuari SPErako dirua eta akonpainamendua eskatu du. Plana sortzeko elkarlana goraipatu du ere. Geroa Baiko Unai Uhalde Iglesiasek SPE aurrera eramateko parte hartu duten pertsona guztien jarrera nabarmendu du, "interes orokorra guztiaren aurretik jarri zutelako". EH Bilduko Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Salak, berriz, denen arteko behetik gorako elkarlanaren ereduaren defentsa egin du. "Kanpo laguntza eta inposaketarik ez" aldarrikatuz.

Podemos-Ahal Duguko Carlos Couso Chamarrok egoera okerraren aurrean Sakanak protestekin eta lanarekin erantzun zuela azpimarratu du. "SPE funtzionatu dezan ahal den guztia egiteko" eskatu dio gobernuari. PPko Ana Beltran Villalbak 2013ko apirilean popularrek aurkeztutako eta Parlamentuak onartu zuen mozio batean ikusi du SPEren ernamuina. I-Eko Migel Nuin Morenok planari babesa azaldu dio eta hura garatzeko konpromisoa adierazi du.

Olatzagutia

Porlandegiaren balorizatzeko Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala iraungia

Horrekin batera, zementu fabrikan erregai alternatiboen balorizazioa egiteko Ingurumen Baimen Integratua iraungi da ere

Nafarroako Gobernuak iraungia, eta beraz, baliorik gabe utzi du Cemetos Portland Valderrivas enpresak Olatzagutiko zementu fabrikan erregai alternatiboen balorizazioa egiteko zuen Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala (UPrS). Helburua zen: "arriskurik gabeko zenbait hondakinen balorizazio energetikorako beharrezkoak diren instalazioak definitzea, haiek Olaztiko zementu fabrikan erregai alternatibo gisa erabilita zementua produzitzeko prozesuan".

Erabakia onartu zenetik eta enpresak inolako lanik egin ez duenez, Nafarroako Gobernuak baimena iraungitzat jo du. 2013ko ilbeltzaren 16an jaso zuen enpresak baimen hori. Udalaren araudia gainditzeko hartutak erabakia izan zela salatu zuten Olatzagutiako Udalak eta 3MB plataformak. Aipatutako data berean Portlandek zementu fabrikan erregai alternatiboen balorizazioa egiteko Ingurumen Baimen Integratua jaso zuen. Nafarroako Gobernuak Baimen hori ere iraungitzat jo du. Enpresak alegaziorik ez du aurkeztu.

Baimena jaso eta bi urtetan beharrezko lanik egin ez duelako porlandegiaren beste bi baimen iraungitzat jo ditu gobernuak azken lau hilabeteetan: hondakinak erretzeko baimena (irailaren 16an) eta magnesita egiteko baimena (azaroaren 27an).

Olatzagutiako zementu fabrika.

3MB: Hondakinen errausketa Nafarroatik betiko desagertzeko lan egiteko garaia da

Olatzagutiko porlandegian hondakinak errausteko egitasmoaren kontra lanean aritu den 3 Mugak Batera Plataformak "pozez" hartu du Nafarroako Gobernuak erregai alternatiboen balorizazioa egiteko zuen Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala (UPrS) iraungitzat jotzea. Horrekin batera bi eskaera egin dituzte plataformatik. Lehenik, dagokien administrazioek UPrS moduko elementuak "neurrigabe" erabiltzeko aukera mugatzea, "UPrS honek sortu digun estualdia eta ezinegona beste inork pasa ez dezan".

Horrekin batera, "edozein delarik izendapena, Nafarroatik hondakinen errausketa betiko desagertzeko" lan egiteko deia egin dute plataformako kideek. Aldi berean, Hondakinetatik Eratorritako Erregaiez (HEE) gaztigatu dute: "zaborrekin egindako prestakin horiek ustez hondakin izateari uzten diote erregai bihurtzeko". 3MBkoek azaldu dutenez, "HEEk gaitasuna duen edozein labetan erre daitezke". Eta azaldu dutenez, "erregai" horiek beste erkidego edo estatu batetik inportatu litezke. Horregatik guztiagatik, 3MB plataformaren eta beste erakunde batzuen erronka da gaur egun idazten ari diren Nafarroako Hondakinen Planak HEEen ekoizpena eta erretzea ez jasotzea.

3MBk, azkenik, gizarteak azaldutako babesa eskertu du.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Maria Alegria Alegria

I. urteurrena

Amiñe maitasuna ez da inoiz itzaltzen
eta itzaltzen ez delako gogoan zaitugu.

Etxekoak

Martin Balda Artola

«Unenuko artzeya»

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.
Beti gure bihotzien ionko za.

Unenun, abenduaren 13an.

Martin Balda Artola

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, momentu hauetan,
gure ondoan egon zareten guztiei.

Familia

GRUPO Funeraria VASCONGADA Ehorzketak TALDEA
Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com
24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan.**
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEAK

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

Pisua salgai Arbizun. 3 gela, komuna, egongela beheko suarekin, estudio txiki bat. Bajera 40 m^2 eta trastelekua 35 m^2. 110.000 €. Tel 676 24 83 05.

Galdutakoak / Opatutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurelkartea.org

Irurtzungo irakurle taldea. Ilbeltzaren 7an, "La comedia humana" - Willian Saroyan.

Odol-emaileak. Abenduaren 30ean, Irurtzunen, arratsaldez.

Arropa bilketa. Calais-eko errefuxiatuendako: mantak, lo zakuak, kanpin dendak, neguko arropa. Bilketa puntuak: Beheko Benta, 3. Altsasu. Astelehenetik ostiralera 15:45tik 17:45era. Beste ordutegiak: 660 89 05 45.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

JAIOTZAK

- **Aratz Ganboa Goñi,** abenduaren 3an Etxarri Aranatzen.
- **Younes Chouiar Chouiaar,** abenduaren 5ean Irurtzunen.
- **Akier Esnal Mendez,** abenduaren 6an Altsasun.
- **Mosaab Mimouni,** abenduaren 10ean Altsasun.
- **Leire Etxaleku Fernandes,** abenduaren 10ean Altsasun.
- **Hodei Loidi Lakuntza,** abenduaren 10ean Arbizun.

Ezkontzak

- **Oscar Hernandez Iñigo eta Isabel Maria Rodriguez Veces,** abenduaren 5ean Irurtzunen.
- **Jose Manuel Rekalde Maiza eta Idoia Erdozain Lakuntza,** abenduaren 14an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Jose Maria Artola Mundiñano,** abenduaren 12an Lakuntzan.
- **Martin Balda Artola,** abenduaren 13an Unanun.
- **Javier Eraso Andia,** abenduaren 13an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ATLETISMOA

KATARAIN 12.A ZIZURKILEN: Larunbatean XIX. Zizurkil gaua lasterketa jokatu zen (7,5 km). Beñat Katarain lakuntzarra 12.a izan zen (25:31), Asier Pellejero lakuntzarra 16.a (26:05) eta Aitor Mozo lakuntzarra 24.a (26:44).

kirola >>

Pilota

Bakaikoak txapela ekarri du Aretatik

Aretako lau t´erdiko Elite Txapelketako finalean 22 eta 9 irabazi zion etxarriarrak Urbietari

Aurreko ostiralean Lau t´erdiko Elite Txapelketako finala jokatu zen Aretan. Joanes Bakaikoa etxarriarrak Urbieta gipuzkoarra izan zuen aurkari. Hasieratik agindu zuen Etxarrikoak. Pilota luze ibili zuen eta tantoak bukatzerako orduan oso fin ibili zen. Urbieta, aldiz, hasieratik partidan ezin sartu aritu zen eta Bakaikoaren nagusitasunaren aurrean etsi egin behar izan zuen. 54 minutuko partidan, 22 eta 9 irabazita jantzi zuen txapela Bakaikoak. Sakez 8 tanto egin zituen etxarriarrak, eta Urbietak, aldiz, 2.

Hurrengo egunean, larunbatean, Bankoa Credit Agricole-Diario Vasco Torneoko finalerdia zuen jokoan Bakaikoak. Promesen mailan etxarriarrak Aizpururekin osatu zuen bikoa, eta 22 eta 11 irabazi zieten Salaberriak eta Martijak.

BIHAR LEKUNBERRIN

Larraun Pilota Elkarteak Larraungo pilotari profesionalak eta profesional ohiak omenduko ditu bihar, larunbatean, 16:30ean. Omenaldia jasoko dutenen artean Ismael Chafee eta ezkurdiatarrak daude.

Lau t´erdian Joanes Bakaikoa etxarriarrak Mattin Ezkurdia arbizuarra izanen du arerio.

Pilota

Binakakoa Altsasura dator

Gaur Ezkurdiak eta Barriolak Irujo eta Rezusta izanen dituzte aurkari Burundan (22:00etan)

Binakako 2. jardunaldian Joseba Ezkurdiak eta Abel Barriolak txapelketako lehen puntua lortu zuten, Atano III.ean Altuna III.ari eta Merino II.ari 22 eta 19 irabazi eta gero. Partida oso lehiatuan, Ezkurdia eta Barriola 8 eta 0 aurreratu ziren, baina atzeko koadroetan Merino gailentzen hasi zen eta 17 eta 18 aurreratzea lortu zuten Altunak eta Merinok. Bukaera ikusgarrian, pilota guztiak izugarri borrokatuta, azkenean 22 eta 19 gailendu ziren Ezkurdia eta Barriola. Sufritzen jakin zuten nafarrek eta bukaeran bere aldera eman zuten partida.

Bestalde, Irribarriak eta Zubietak ez dute oraindik punturik bildu. Berasaluze ordezkatzen zuen Danel Elezkanok eta Beroizek 22 eta 17 irabazi zieten astelehenean Irribarriari eta Zubietari, Binakako Txapelketako 2. jardunaldia ixten zuen partidan. Elezkano Binakakoan oraindik ez da aritu titular moduan, baina Zaratamoko pilotariak aurreko urtean ordezko moduan 3 partida eta aurtengoan 2 jokatu ditu, eta guztiak irabazi, gainera. Astelehenean partidako protagonista izan zen Elezkano II.a. Beroizekin batera, 9 eta 1 aurreratu ziren. Irribarria eta Zubietak gogor borrokatu zuten partidari buelta emateko, eta hainbatetan berdintzeko zorian izan ziren, baina, bukaeran, jokoan zegoen puntua Elezkanok eta Beroizek lortu zuten.

Txapelketako hirugarren jardunaldian, Ezkurdiak eta Barriolak Irujo eta Rezusta izanen dituzte arerio gaur Altsasun, eta Bengoetxea VI.aren eta Untoriaren kontra aritu beharko dute Irribarriak eta Zubietak asteartean Arrasaten.

Binakako 3. jardunaldia

Ezkurdia-Barriola / Irujo-Rezusta (ostiralean, Altsasun. ETB1, ntb)
Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Altuna III.a-Merino II.a (larunbatean, 18:00etan, Labriten. ETB1, ntb)
Berasaluze II.a-Beroiz / Artola-Albisu (igandean, Oiartzunen, 17:00etan. ETB1, ntb).
Bengoetxea VI.a-Untoria / Irribarria-Zubieta (asteartean, 18:00etan, Arrasaten).

Binakakoa. Sailkapena

Irujo-Rezusta	2 puntu
Artola-Albisu	2 puntu
Altuna III.a-Merino II.a	1 puntu
Ezkurdia-Barriola	1 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoeta	1 puntu
Berasaluze-Beroiz	1 puntu
Irribarria-Zubieta	0 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	0 puntu

Ezkurdia: "Beldurrik gabe jokatzea, hori izango da inportanteena"

Asteazkenean materiala aukeratu zuten Ezkurdia-Barriolak eta Irujo-Rezustak Altsasun. "Pilota ona da, ostiralean diferente portatuko da ziurrenik, baina gaur pozik geratu gara. Beraienak salida gehiago edo pixka bat azkarragoak dira. Beraiek gu baino kolpe gehiago dute eta normala da beraiek irteera gehiagoa dutenak aukeratzea" azaldu zuen Ezkurdiak. Estrategia zein izango den galdetuta, "zaila dela esatea" onartu zuen arbizuarrak. "Ahal dena egingo dugu. Gurea partida gogortzen saiatzea izanen da, beraiek guri tantoa egitea kostatzeko. Baina oso indartsu daude, pilota azkar mugitzen dute, abiadura askorekin. Gurea defentsa ona egitea izango da, boleekin eta gantxoekin erritmoa aldatzea eta beldurrik gabe jokatzea. Hori izango da inportanteena" nabarmendu du Ezkurdiak. Barriolarekin oso gustura dagoela onartu du sakandarrak. "Gogoa nuen berarekin jokatzeko. Niretzat atzelari bikaina da, betidanik miresten dudana. Txapelketa zaila dago baina ea gauzak ongi egiten ditugun. Txapelketa berdindua atera da, faboritoek ez dute beti irabazten eta hori txapelketarako ona da. Gu gurea egiten saiatuko gara. Orain arteko bi partidak onak izan dira, kostatakoak, eta ea ostiral honetakoa horrela den" gaineratu du Ezkurdiak. Burunda frontoian "gustura aritzen dela, etxe ondoan pozik" aitortu zu Ezkurdiak. "Ea ostiralean giro ona sortzen den frontoian, hori izango da politena. Sentsazio onak ditut, fisikoki ongi nago eta eskuetatik ere. Ea horrela agoantatzen dugun" dio Josebak.

Irujo: "Txapelketa luzea da, bukaerara arte ez da erabakiko"

Irujok, bere aldetik, "faboritoak egon badaudela baina hori kantxan demostratu behar dela" adierazi zuen. "Txapelketa luzea da, gogorra, eta ziur lesioak agertuko direla. Binakakoan oso zaila da partida guztiak jokatzea. Uste dut 11. edo 12. jardunaldira arte ez dela ezer erabakiko eta, alde horretatik, emozioz betetako Txapelketa izango da" nabarmendu zuen. Burundan jokatzearekin kontentu azaldu zen Iberokoa. "Ia urtero jokatzen dugu festetan, entrenatzera ere etortzen gara, etxetik gertu dago eta beti dago giro ona. Zein izango den gure taktika? Ez dago sekreturik. Beñatek 9raino bidali ditzala pilotak eta nik pilota dudanean asmatzen saiatzea. Eta gauzak ateratzen ez bazaizkigu, ahal den hobekiena defendatzea, tantoa lortu arte".

Irurtzun aurrera EHko Kluben Artekoan

Irurtzunek Galdakaoko Adiskide izan zuen aurkari Euskal Herriko Kluben Arteko Torneoko final zortzirenetako itzuliko partidatan. Lau t´erdian, Galartzak (Adiskide) 18 eta 15 irabazi zion Ezkurdiari (Irurtzun), baina buruz burukoan Atutxa (Adiskide) 7 tantotan utzi zuen Armendarizek (Irurtzun). Bukatzeko, binaka Kantxori eta Hernandezi (Adiskide) 22 eta 12 irabazi zieten Mariezkurrenak eta Lansalotek (Irurtzun). Bihar, Torneoko final laurdenetan, Tolosako Aurrera Saiaz izanen du aurkari Irurtzunek.

Amaya
Okindegi-gozotegia

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

ARAIA 945 314 572

ALTSASU
• Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
• Zumalakarregi plaza 948 468 026
• Amaia supermerkatua
Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
• Gipuzkoa 4
• San Juan kalea 50. 948 564 053
• Netto 659 288 401

ALTSASU

OLAZTI 948 468 755

ETXARRI 948 461 660

Xakea

Xakelariak txapelketan parte hartzen, tartean Flores eta Insausti.

Mikel Razkin garaile XVI. Sakanako Xake Txapelketan

16 xakelari aritu ziren, tartean 4 sakandar

Larunbatean ospatu zen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldearen, Arakilgo Udalaren eta Hiriberriko elkartearen laguntzarekin antolatutako Sakanako XVI. Xake Txapelketa, Hiriberriko Txitera elkartean. Txapelketa, aldi berean, 1.800 ELO puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izan zen.

Goizeko 10:00etatik hasita, arratsaldera arte aritu ziren lanean txapelketan izena eman zuten 16 xakelariak, bazkaltzera gelditu ziren tartea salbu. Gehienak Iruñekoak ziren, Sakanako 4 xakelari izan ezik. Antolakuntzan aritu ziren Zaldi Beltza Xake Talde sakandarreko arduradunek azaldu dutenez, txapelketa polita izan zen, eta Hiriberriko elkartearen harrera eta esku zabaltasuna eskertu zuten.

Sakandarrak XVI. Sakanako Xake Txapelketan:

1. Mikel Razkin Fraile (7,5)
7. Koldo Flores Lazkoz (4,5)
8. Cesar Razkin Igoa (4)
10. Ismael Anton (4)
15. Sebastian Insausti (2)

16 urtetik beherakoak:

1. Unai Ruiz Echeverria (2)

Lehen sakandarra:
Koldo Flores (4,5)

Flores, lehen sakandarra

Mikel Razkin Fraile izan zen garailea (7,5 puntu), Mikel Ochoa (6 puntu) eta Joseba Otanoren (5 puntu) aurretik. Koldo Flores izan zen lehen sakandarra (4,5 puntu), eta 16 urtetik beherakoetan Unai Ruiz (2 puntu) gailendu zen. Aurten hainbat gaztek ezin izan zuten Sakanako Txapelketan parte hartu, 1.800 ELO puntu goratik daudelako, beste kategoria batean.

Pala

I. Gure Pilota Pala Torneoa: 3. jardunaldia jokoan

Asteburu honetan Nafarroako Pilota Federazioak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuaren, Gure Pilota klubaren eta Etxarri Aranazko eta Arbizuko Udalen laguntzarekin antolatutako Emakumeen I. Gure Pilota Sakanako Pala Torneoko 3. jardunaldia jokatuko da, Etxarrin eta Arbizun.

+Emaitzak: www.guaixe.eus

Txapelketako 3. jardunaldia

Kadeteak (larunbatean, 10:00etan)
Elorri-Irantzu / Luzia-Iune
Iraia-izaro / Uxue-Ane
Maddi-Maitane / Uxue-Ane
Iraia-Izaro / Luzia-Iune

Gazteak (larunbatean, 10:00etan)
Naroa-Dinora / Saioa-Naroa
Biain-Aroa / Naroa-Dinora

Promozio maila (igandean, 10:00etan):
Igoa-Argain / Murillo-Gabirondo
Otaegi-Maiza / Isasmendi-Ardanaz

Elite maila (igandean, 10:00etan)
Muneta-Etxaniz / Garmendia-R. de Larramendi
Aristorena-Arrieta / Martin-Huizi

Areto futbola

Irurtzungo 12+12 orduko areto futbol txapelketarako izena ematea zabalik

Abenduaren 26an eta 27an jokatuko da txapelketa

Guan taldeak atzera ere Gabonetan 12+12 areto futbol txapelketa antolatuko du. Abenduaren 26an eta 27an izanen da. Sari potoloak izango dira: talde irabazleak 500 euro jasoko ditu, bigarrenak 250 euro eta hirugarrenak 100 euro, eta torneoko jokalari onenarendako eta atezain onenarendako ere saria izango da. Horretaz gain, final handiko atsedenaldian Gabonetako zare bat zozketatuko da.

Txapelketan izena eman nahi duten taldeek 649 092 346 telefonora hots egin beharko dute.

Atsedenaldiaren ondoren lanera

Magna Gurpea Xotak Peñiscolaren kontra jokatuko du gaur, Levanten

Aste honetan atsedenaldia izan du lehen mailako areto futbol txapelketak, baina asteburu honetan lanera itzuliko dira jokalariak. Egun, sailkapen orokorrean Inter Movistar da lider (40 puntu). Magna Gurpea Xota hirugarrena da (27 puntu), El Pozo laugarrenarekin puntutara berdinduta.

Gaur, ostiralean, sailkapenean 10. postuan dagoen Peñiscola RehabMedic taldearen kontra ariko dira Imanol Arregiren mutilak, Peñiscolan.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

13. JARDUNALDIA

URROZTARRA 1 – ETXARRI ARANATZ 2
LAGUN ARTEA 3 – INFANZONES 0
Urrotzen irabaztera atera zen Urroztarra, baina Etxarri liderrak ongi baino hobeto jakin zuen etxeko taldea gelditzen. Urroztarra aurreratu zen, baina 2. zatian tarte laburrean bi gol sartu zituzten Jauregik eta Goikoetxeak, 1 eta 2 aurreratuz. Etxarrik bikain defendatu zuen eta 3 puntuak ekarri zituen.
Lakuntzan denboraldi honetako partidarik onena jokatu zuen Lagun Arteak. Partida guztian nagusitu zen talde txuria. Sergiok aurreratu zuen Lagun. 2. zatian Xabik eta Asierrek sartutako 2 golekin 3 eta 0 gailendu ziren lakuntzarrak.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz ..... 30 p
8. Lagun Artea ..... 19 p

Asteburuko jardunaldia

ARROTXAPEA – ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 15:30ean, El Iratin)
GARES – LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:00etan, Garesen)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

13. JARDUNALDIA

AURRERA LIEDENA 3 – ALTSASU 4
Altsasuk garaipen polita lortu zuen Liedenan, eta lortutako 3 puntuei esker sailkapenean gora egin dute gorritxoek.

Sailkapena >>

1. Lezkairu ..... 37 p
11. Altsasu ..... 12 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - MENDILLORRI
(Larunbatean, 15:45ean, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

2. FASEKO 2. JARDUNALDIA. A MULTZOA

ZALDUA 2 – UNZITI 1
ENERIZ 2 – EGIARRETA 3
Egiarreta da lider berria eta Zaldua bosgarren postura igo da.

Sailkapena >>

1. Egiarreta ..... 6 p
5. Zaldua ..... 3 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA – BAR MIKEL
ZALDUA – APOLO

Futbola

Kimuen Futbol 8 Topaketak

8. jardunaldia jokatuko da igandean Altsasun

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Kimuen Futbol 8 Topaketen 8. jardunaldia jokatuko da igande goizean Altsasun. Aurten Sakanako 9 talde ari dira lehian. Topaketa txapelketa moduan jokatuko da, baina ez da sailkapenik egingo, helburua txikienengan kirola eta futbola sustatzea baita. Guztiek ongi pasatzea eta txikienek futbolarekin gozatzea da asmoa.

Igandeko jardunaldiaren ondoren topaketek Gabonetako atsedena hartuko dute, ilbeltzaren 17ra arte.

Kimuen Futbol 8 Topaketen 8. jardunaldia

Igandean, Altsasun
11:00etan Mediolanum – Sutegi
11:00etan Etxarri Aranatz -Urdiain
12:00etan Tipi Tapa – Sayas
12:00etan Kaixo – Dantzaleku
Atsedena: Lagun Artea

Igeriketa

350 igerilari Altsasun

Nafarroako Kirol Jolasetako Promesen Ligako benjaminen 2. jardunaldia jokatu zen

Zelanda kiroldegia igerilarien bilgune izan zen larunbatean, Nafarroako Kirol Jolasetako Promesen Igeriketa Ligako benjaminen 2. jardunaldia jokatu baitzen bertan. Nafarroako klub ezberdinetako 350 neska-mutiko aritu ziren jardunaldian, Iruñeatik, Tuteratik, Tafallatik, Lizarratik, Agoitzetik eta beste hainbat tokitik etorrita. Jakina, Sakanako Igeriketa Taldekoak ere aritu ziren lehian.

Sakandarren lana

Gizonezkoen 50 m bizkarrean 103 mutiko aritu ziren. Sakana taldeko Oihan Unamuno 7.a sailkatu zen, Joseba Beltran de Heredia 12.a eta Mikel Rodriguez 42.a. Emakumezkoen 100 m bularretan 70 partaide izan ziren. Sakana taldeko Nahia Miguelek 18. postuan despeditu zuen lana, Joane Garciak 19. postuan eta Maddalen Oiarbidek 25. postuan. Emakumezkoen 50 m bizkarretan 72 neska lehiatu ziren; Joane Garcia 14.a sailkatu zen, Maddalen Oiarbide 36.a eta Nahia Miguel 42.a. Bukatzeko, gizonezkoen 100 metro bularretan 36 mutil aritu ziren.

Sakana taldea handitu

Sakana Igeriketa Taldeko arduradunen esanetan "Gurea talde apala da, kide gutxi gara, baina emaitza onak izan genituen". Sakanako igeriketa taldean Arbizuko, Etxarriko, Urdiaingo, Uharteko, Olaztiko, Lakuntzako eta Altsasuko neska-mutilak daude, eta taldea zabaltzea, kide gehiago egotea nahiko lukete. "Ea mutil eta neska gehiago animatzen diren eta denon artean Sakanako igeriketa taldea handitzen dugun" diote. Interesatuek Zelandi kiroldegitik pasa eta bertan galdetu dezakete.

Sakana taldeko igerilari batzuk. UTZITAKOA

Bukatzeko, larunbateko igeriketa jardunaldia antolatzeko ATABO Altsasu S.L eta Altsasuko Udala eskertu nahi dute taldekoek, "euren disposizio onagatik".

Bestalde, Sakana Igeriketa Taldeko kimuak Noainen lehiatu ziren eta emaitza onak lortu zituzten.

+www.guaixe.eus

Mendia

Mendigoizaleen Eguna etzi

Aurten santutegian ez da elurrik egongo.

51. Mendigoizale Eguna ospatuko da igandean Aralarren

Gabonen aurreko igandean urtero moduan, Aralarko Santutegiak Mendigoizale Eguna hartuko du. 1964. urtean hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepikatu izan da. Hortaz, aurtengoa mendizaleen festaren 51. edizioa izango da.

Meza 10:45ean eta auzatea 12:00etan

Mendizale gehienak oinez joango dira Aralarrera. Gehienak Uharte Arakilgo bidetik, baina Sakanako Mendizaleak taldetik Lakuntzatik abiatzeko deia egin dute, eta egongo da Madotzetik, Lizarrustitik eta Lekunberri aldetik joko duenik. Behin Aralarren, hildako mendizaleen oroimenezko meza izanen da 10:45ean. Elizkizunetan Lekunberriko abesbatzak kantatuko du. Mendizaleek euren mendi materiala bedeinkatzeko aukera izango dute eta, jakina, Mikel Goiaingeruari musu emateko aukera. 12:00etan hamaiketakoaren txanda izango da, trikitixa eta pandero doinuekin girotutakoa, eta kanta eta dantzen tartea helduko da. Auzatea santutegiko tabernak prestatuko du. Mendizale asko eta asko bazkaltzera bilduko dira, bai San Migelen eta baita Nafarroako beste hainbat txokotan ere.

Egun polita izaten da Mendigoizale Eguna, Nafarroako mendizale guztien bilgune, joandakoak oroitzeko eta aspaldiko mendizaleak ikusteko eguna. Gainera, urte bukaera ospatzeko modua ere bada. Nafarroako Mendi Federazioak herritar guztiei igandean Aralarren biltzeko gonbita egin die eta giro polita espero da Aralarren.

Federatzeko aukera eskaintzen du Zabalartek

Urtea despeditzen ari da eta 2016rako Nafarroako Mendi Federazioan federatzeko garaia iritsi zaie mendizaleei. Lakuntzako Zabalarte klubarekin federatu nahi dutenek asteburu honetan dute aukera. Larunbatean eta igandean, 18:00etatik 20:30era egin daiteke tramitea Lakuntzako Pertza elkartean.

Igandean Lakuntza-Aralar ibilbidea egitera

Igandean, Run-19 taldearekin batera Lakuntza-Aralar Mendi lasterketako bi ibilbideak eginen dituzte Zabalarte klubekoek, eta hala nahi duten guztiek, Aralartik barna Traila antolatu baitu Run-19 taldeak. Ibilbide luzea egiteko goizeko 8:00etan jarri dute hitzordua, Lakuntzan, eta ibilbide motza egiteko, aldiz, 9:30ean. Izena emateko (648 550 241).

Aralarren bi meza

Mikel Goiengeruaren Kofradiatik adierazi digutenez, Mendigoizaleen eguna dela eta bi elizkizun izanen dira igandean Aralarren. Mendigoizaleena 10:45ean izanen da, eta iganderoko ohiko meza, aldiz, 12:30ean. Bide batez, Kofradiak Eguberri eta Urte Berri on bat opa die Guaixeko irakurle guztiei.

Gimnasia erritmikoa

Iskizaren erakustaldia

Bihar, larunbatean, Zelandi kiroldegian

Iskiza Sakana gimnasia erritmiko taldeak Gabonetako erakustaldia eginen du bihar, larunbatean, Zelandi kiroldegian. Ikasturtean zehar horrenbeste ilusio eta gogoekin prestatutako koreografiez eta gimnasia erritmiko ikuskizunetaz gozatzeko aukera eskainiko du erakustaldiak.

Kin-Ball

K-Olea txapeldun

Asteburuan senior mailako Espainiako Kin-Ball Txapelketa jokatu zen Irurtzunen. Txapelketa oso ongi joan dela adierazi digu Atakondoako soin heziketa irakasle Manuel Iznaolak, eta final handia hiru taldek jokatu zutela: Jaengo Martos herriko K-Oleak, Jaen hiriburuko KB Lizardsek eta Granadako Roockiesek. Final lehiatuan K-Olea gailendu zen. Horretaz gain, Atakondoako neska-mutikoek lagunarteko partida jokatu zuten.

"Garrantzitsuena da kirol honek interesa piztu duela. DBH 16 ikaslek taldea sortzearen beharra aipatu didate. Ikasleekin Kin-Ballean arituko gara Atakondoan, eta hurrengo ikasturteari begira ikastetxetik kanpo talderen bat sortzea da asmoa" nabarmendu du Iznaolak.

Ikus 11 Galderak eta www.guaixe.eus.

Herri kirolak

Sakanako herri kirolarien festa ederra Etxarrenen

Aizkolariak, harri jasotzaileak eta tiratzaileak aritu ziren Sakanako Herri Kirol Jardunaldian

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak urtero Gabonen aurretik Sakanako Herri Kirol Jardunaldia antolatzen du. Igandean Etxarrengo Aranburu frontoiak hartu zuen aurtengo ekitaldia, eta giro bikaina izan zen.

Aizkora lanean Josu Agirre, Mikel Agirre, David Amillano, pista txirrindulari profesionala den Hodei Mazkiaran, Joan Flores, Abel Uria, Julen Paniagua eta Iker Gorriti aritu ziren, aizkora eskolakoak, eta baita Goizeder Beltza eta Juanjo Erdozia aizkolariak ere. Horretaz gain, Erdozia familiako hiru belaunaldi ikusi genituen lanean: Juanito aitona, Juanjo aita eta Jon semea. Aizkolari gaztetxoetan Josu Jaka, Oihan Mariñelarena, Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide igo ziren enbor gainera.

Sokatiran, Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolako Sokatira Taldekoek lehia ederra izan zuten; 20 tiratzaile aritu ziren guztira. Harriak jasotzen, aldiz, Sakanako Harri jasotze eskolako Albaro Zugarrondo, Iñaki Ibero eta Aitor Oiarbide ibili ziren. Trontzalariak ere lanean aritu ziren Etxarrenen, Andra Mari ikastolako hiru bikote eta Iñigo Aritza ikastolako bikote bat.

Sakanako Herri Kirol Jardunaldiaren balorazio polita egin du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. "Aizkora eta harrijasotze eskolako partaideak eta gainontzeko eskualdeko herri kirolariak biltzen dituen jardunaldia da gurea. Batzuen lehiak eta besteen erakusketak ederki erakutsi zuten zein den herri kirolen osasuna Sakanan. 40 kirolari inguru aritu ziren lanean, Etxarrenen bildutakoen gozamenerako. Esate baterako, erdoziatarrek aizkolarien 3 belaunaldiren (aitona, aita eta semea) erakusketarekin ederki goza arazi zuten".

Andra Mari eta Iñigo Aritzako neska-mutilak sokatiran aritu ziren. UTZITAKOA

kultura >>

SALAZAR ÁRTBOLES ERAKUSKETAN: Donostiako Arteko galeriak 30 sortzaileek zuhaitzen inguruan egindako obrekin erakusketa mustu zuen atzo, ilbeltzaren 16ra arte ikusgai izanen da.

Letren ilustratzaile txikiak

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta, Iortia kultur guneak haurrek album ilustratua sortzeko tailerra hartuko du gaur. 6 eta 10 urte bitarteko 25 haur Aitziber Alonso ilustratzailearekin eta Yolanda Arrieta idazlearekin ariko dira. Haien eskutik hitza eta irudia uztartuz tailerrean album bat euren aurrean sortzen ikusiko dute. Haren zati bat etxera eramanen dute ere.

Tailer hori, Mank-ek Nafarroako beste euskara zerbitzu batzuekin antolatutako Etxepare sariaren egitasmoaren barruan kokatzen den jarduera da. Saioaren helburua haurrak ilustratutako albumetara gerturatzea da.

Patxi Zubizarretarekin hizketan

Hainbat euskara ikasle, Mintzakide programako kide eta hainbat sakanda Patxi Zubizarretarekin elkartu ziren atzo Altsasuko Iortia kultur gunean. Irakurriak zituzten haren *Hiru gutun Iruñetik* (Pamiela, 2012) eta E*makume sugearen misterioa* (Alberdania, 1993) liburuak izan ziren hizketarako gaia. Mank-en Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin antolatu zen.

Agertokiye egitarauko ikuskizunendako abonuak

Udalaren web orriaren bidez, www.etxarriaranatz.eus, sarrerak ere eros daitezke

Etxarri Aranazko neguko egitarauaren ardatza da Agertokiye, Etxarri Sakanako sortzaileen plaza bihurtuko duena. Etxarri Aranazko Udaleko Kultura Zerbitzuak programazioarekin batera bi berrikuntza eskaini ditu. Alde batetik, hiru emanaldietarako abonuak edo txartelak erosteko aukera. Haurren kasuan *Tren geltokia*, *Planet 51* filma eta *Pluton: horkonpon Marianton!* ikuskizunak 6 eurogatik ikusteko aukera izanen da (2 aurreztea). Helduen kasuan, berriz, Agertokiye egitarauko hiru antzezlanak (*Ekoetikopatetiko*, *Amico* eta *Mikroantzerkiak*) 12 eurogatik ikusteko aukera izanen da (6 aurreztea).

Bestetik, abendutik kultur etxeko ikuskizunetarako sarrerak www.etxarriaranatz.eus web orriaren bidez eskuratu daitezkeela jakinarazi dute udaletik.

Muxuen doinura

Igandean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) antzerki taldeak *Besos* antzezlana ekarriko du Irurtzunera igandean. Maitasunaz hitz egiterakoan betidanik erantzunik jaso gabeko galderak egin dira eta, antzezlan horrekin, NUPeko antzerki taldeak erantzun horien gakoak emanen ditu. Era dibertigarrian gainera. Ikusleek beraiek bizitako egoeraren bat gogoratuko duela ziurtatzen dute taldetik.

Carles Albeola eta Roberto Garciak idatzitako antzezlan horretan "bihotzarekin eta pertsonen arteko harremanekin zerikusia duten hainbat egoera barregarri aurkezten ditu". Hala, ezinezko maitasunekin batera, hobe ezinak diren bikoteak, aprobetxatutako pertsonak eta beste hainbat agertuko dira. Guztiak Camilo Sesto, Mocedades, Mari Trini eta beste askoren abestiekin lagunduta. Doinuek egoera bakoitzaren erromantikotasuna eta barregarritasuna nabarmentzen dute. NUPeko antzerki taldeak 2008tik prestatu duen zazpigarren antzezlana da *Besos*.

Bertso truk Oñatin

Sakanako Bertso Eskolako Eneko Lazkoz, Joseba Andoni Beltza eta Saats Karasatorre larunbatean Oñatiko gaztetxean izan ziren. Bertsotruk, Euskal Herriko Bertso Eskolen arteko desafioaren ekimenaren barruan oinatiarrekin neurtu ziren etxarriarrak. Sei bertsolariak ofizioka, puntuei erantzunak emanez eta bakarka aritu ziren.

+www.guaixe.eus

bazterretik

Izena AbizenIzena Abizen

Le Corbusier-Modulor neurri sistema

Aurten, Le Corbusierren heriotzaren 50. urteurrena betetzen da. 1965. urteko abuztuaren 27an, Edouard Jenneret Gris, Le Corbusier, jatorri suitzarreko arkitekto frantziarra hil zen, Roquebrune-Cap-Martinen. Mugimendu modernoaren sortzaileetako bat eta XX. mendeko arkitektorik garrantzitsuenetako bat izan zen. Zutoinak, beirazko hormak, teilatu lauak eta oinarrizko forma geometrikoak erabiltzea proposatu zuen, eta itxura monotonoko baina erosotasun handiko etxeak diseinatu zituen. Arkitekturan arkitekto eta teorilaria ere izan zen. Haren ideia iraultzaileak munduko toki askotan gauzatu ziren.

Le Corbusierrek, etxebizitza "bizitzeko makina" bezala definitzen zuen. Eraikinak serialki eraiki eta errepikatzeko diseinua bultzatu zuen. Diseinu horretara iristeko, arkitektoak "Le Modulor" izeneko neurketa sistema sortu zuen, natura eta izakiaren arteko erlazio matematikoan oinarrituta. Neurri sistema internazionala lortzea zen haren helburua, prefabrikazioa eta industrializazioa bultzatuko zituena. Sistemak zifrekin lan egin ordez, proportzioak erabiltzen ditu. Alde batetik, oinarri modura, 1,83m.ko (sei oin) altuerako gizona du, besoa altsatuta 2,26m.ko neurria duena. Giza sekzio honetatik ateratako neurrien konbinazioekin proiektatuko ditu eraikinak. Bestetik, naturan aurkitzen diren proportzioak ditu oinarri: Gizakiaren neurriak, urrezko sekzioa, karratu bikotza, angelu zuzena eta horien arteko konbinazio posibleak.

Arkitektoak Marseillako "Unité d'habitation" eraikinean aplikatu zuen Modulor sistema lehenengoz. Eraikuntza hogeigarren mendeko arkitektura ikonoa da, eraikin osoen estandarizazioaren eta errepikapen adibide argia. 140m luze, 24m zabal eta 56m altuko eraikin honek, maila bakoitzeko 58 etxebizitza duplex ditu, eta bertara iristeko, 3 pisuz behin kokaturiko korridorea erabili beharra dago. Eraikina hormigoizko pilote gainean altsatzen da, lurrazal mailan iragazkortasuna eskeintzeko, barne zein kanpo eremuak erlazionatuz eta komunikazio bertikalak bertan kokatuz. Estalia aldiz erabilgarria da, bizitasun eremu, izan ere, bertan 300mko atletismo pista, gimnasio estalia eta erizaintza eta haurtzaindegia daude. Eraikuntzaren eragina izugarria izan zen, eta honen atzetik *Nantes-Rezé* (1952), *Berlin* (1956), *Briey-en-Forêt* (1957) eta *Firminy* (1960) etxebizitza unitateak etorri ziren.



Bizirik dagoen artea

Itziar Nazabal margolari altsasuarrak aipamen berezia lortu du Italiako Triannale di Arti Visive erakusketan, azaroan

Erkuden Ruiz Barroso

Barnean duena margoaren bidez islatzen du Itziar Nazabal artistak haren lanetan. "Nire lana sentimendu eta testura leherketa bat da". Udan Ferrarako Triennale di Arti Visive erakusketan (Italia) parte hartzeko gonbidapena jaso zuen. Aukera ezin hobea zen eta baietz esan zuen. Ondoren, minak jo zuen: "oso lan gogorra izan zen. Margotzeko gogorik ere ez nuen. Baina egin behar nuen". Erakusketan epaimahaiaren aipamen berezia lortu zuten.

Nazabalek sentimenduekin lan egiten du. Barruan duena kanporatzen du. "Ni neu leherketa bat naiz. Batzuetan koloreak eta egingo dudana erabakitzen dut. Baina beste batzuetan haiek ni bilatzen naute". Hori gertatu zitzaion Triennale di Arti Visive Italiako erakusketara aurkeztu behar zituen artelanak sortu zituenean. Deitu zutenean aukera ezin hobea zela pentsatu zuen, baina haren lan ia guztiak mundutik banatuta daude, gehienak Txinan. Hortaz, erakusketarako hiru artelan sortu behar zituen. "Une gogor batean nengoen. Amona galdu genuen eta nik ez nituen gogoak margotzeko. Indarrik gabe nengoen. Baina aukera ezin hobea zen, eta ezin nuen galdu. Amonak ez zuen nahiko".

Lanean jarri zen eta koloreek deitu zuten. "Kolore hotzak dira: urdinak, grisak, turkesak... izotzaren koloreak dira. Nik ez nituen bilatu, atera ziren". Min handiz hiru biluzi sortu zituen, min horren erakusle direnak: Nire bihotza garrasika dago, emakume bat belauniko eserita bularra goruntz duela bihotza aterako balitzaio bezala indar handia eginez; Bizitzak itotzen zaituenean, emakume bat eskuak bere lepoan dituela itotzen balu bezala; eta, azkenekoa, Minak nola txikitzen zaituen, emakume bat berari hartuta eta txikituta. "Ez dakit jendeak horren atzean zer zegoen jakingo zuen".

Nazabalen xedea artelanak Ferrarako erakusketan aurkeztea zen. Aipamen berezia "sorpresa handia" izan zen. Gainera, artelanak izan duten harrerarekin pozik dago Nazabal. "Pertsona bat nirekin harremanetan jarri zen eta nire artelanarekin argazki bat egin zuela erakutsi zidan. Asko poztu ninduen". Bi bildumazalek artelanetan interesa adierazi dute.

Zuzeneko margotzea

Itziar Nazabalek ez du nahi bere lanak erakusketa batean bakarrik ikusi ahal izatea. Ikusleak artelanarekin parte izatea nahi du. Erakusketa bizitza izatea. Horregatik, prozesua erakustea gustatzen zaio. "Artista bakoitzak margotzeko modu bat dauka eta nirea berezia da, ezberdina". Leherketen bidez margotzen du Nazabalek eta gorputza erabiltzen du. Ondoren, figurazioa egiten du. Igandean, 18:00etan, Altsasuko Haritza Tabernan egonen da zuzenean margotzen. "Ez dakit nola deitu honi: performancea izan daitezke, art show-a..." Nazabal artista eta pertsona dena erakusten du zuzeneko margotzeetan. "Ni naizena da. Sortzea gustatzen zait. Eta sortze prozesu hori erakustea". Jendearengan zerbait sentiaraztea nahi du Nazabalek. Zuzeneko margotzean ezinezkoa da jakitea nola izanen den amaierako lana: "ideia bat daukat, baina nork daki zer aterako den". Haritza tabernan eginen duen lehenengoa "kontaktu txiki bat" izango da baina gehiago etorriko direla dio, beste hainbat arte diziplinekin fusioa eginez. Datorren urterako bi erakusketa "aktibo" antolatzea nahi du Nazabalek.

Enkorek kontzertua emango du Altsasun

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Enkore talde bilbotarrak kontzertua eskainiko du ostiral gauean Foru plazan. Bertan beren azken lana, *E* albuma joko dute. Disko berria azaro hasieran argitaratu, eta hilaren amaieran *ETour* birako lehen emanaldia eskaini zuten Gasteizen. Horrela, Altsasuko kontzertua, Intxostiapunta gazteguneak atondua, biraren bigarren geltokia izanen da. Azken albumean rocka doinu dantzagarriekin uztartu du.

www.guaixe.eus

McOnak taldeak Altsasuko gaztetxean estreinatuko du disko berria

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Urtebeteko atsedenaren ondoren bueltan da McOnak talde lekeitiarra, *Galarrena* izeneko disko besapean dakarrela. Durangoko Azokan kaleratu ondotik, diskoaren aurkezpen emanaldia Altsasuko gaztetxean eginen du. Bihar izango da, 23:00etatik aurrera. Folk-rock estiloko taldea da McOnak. 2011n sortu zen, Lekeition, eta 2013an estudioko lehen lan luzea argitaratu zuen, Piraten matxinada izenekoa. +www.guaixe.eus

Etxarrin IGO

Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina martxan da Etxarri Aranatzen. Hirugarren aldia da Etxarri Aranazko Victoriano Huizi udal liburutegiak ekimena antolatzen duena. Helburua bikoitza da. Batetik, euskaraz irakurriko duten irakurle gazte eta heldu berriak erakarri nahi ditu, eta bestetik, ohiko irakurle euskalduna saritu.

Kanpainan parte hartu nahi duenak liburutegiko euskarazko liburu bat maileguan hartu eta irakurri beharko du. Ondoren, hari buruzko iritzia fitxa batean eman beharko du, liburutegian. Trukean liburuzainak herriko liburudendan euskaraz argitaratutako literatura liburu bat erosteko deskontu txartel bat emanen dio. Gainera, kanpainako parte-hartzaileek Kaxeta liburu-dendan 30euroko lau sariren zozketan parte hartuko dira. Azaroaren 15ean hasi zen kanpaina eta ilbeltzaren 31ra arte luzatuko da.

Deskontua

%25eko beherapena izango du deskontu txartelak. Baina euskara ikasten ari direnek eta Mintzakideko kideek %50a izanen dute. Etxarriko liburutegiko irakurle taldekoek, aldiz, %40koa izanen dute.

Eguberrien swing soinu banda

Gaur, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean

Nafarroako Ganbera Abesbatzaren jazz eta musika modernoaren atala da Jazzy Leap, Andoni Arcillak zuzentzen duena. Abesbatza hori, Jazzy Leap Band-ekin batera, gaur Altsasun eguberrietarako prestatu duten errepertorioa eskainiko du, *Christmas Swing*. Emanaldia Amerikako Estatu Batuetako herri gabon kantak eta jazzaren arteko nahaste adeitsua da, publiko zabalari eskainia. Jazzy Leap-ek swing erritmorekin osatutako egitaraua Iruñean eta Altsasun besterik ezin izanen dira entzun.

+www.guaixe.eus

Etxarriko abesbatzek argiari kantatuko diote

Larunbatean, 20:00etan, Etxarri Aranazko elizan

Etxarri Aranazko abesbatza eta Abesbatza Txikia elkarrekin eskainiko dute eguberri kontzertua. Xabier Leteren olerki batean inspiratuta, argia gai hartuta, kantuan ariko dira bi abesbatza etxarriarrak. Elena Garziandia eta Jasone Razkinek zuzentzen duten txikien koralak zabalduko du emanaldia. Beste hiru pieza ere abestuko dira. Alicia Armendarizek zuzendutako helduek hartuko dute lekukoa, kantu herrikoi eta sakroekin osatutako egitaraua aletuko dute. Kontzertua bi abesbatzek elkarrekin despedituko dute.

+www.guaixe.eus

Erkudengo Ama abesbatzak eguberriei doinua jarriko die

Larunbatean, 20:45ean Altsasuko elizan

Erkudengo Ama abesbatzak eguberriko kontzertua eskainiko du bihar. Biharko emanaldirako garaikoak propio diren kantuekin batera bestelakoak ere tartekatuko ditu. Kantu batean, gainera, Inma Arroyok zuzentzen duen abesbatzak Josetxo Lumbreras musikariaren laguntza izanen du.

Emanaldi horrekin emanaldiz betetako asteak itxiko ditu Erkudengo Amak. Azaroaren 29an Orioko Salatxo abesbatzaren bisita hartu zuten. Nafarroako Eguneko emanaldiaren ondoren, abenduaren 5ean Iruñeko II. Eskualdeen Abesbatzen topaketan izan ziren.

+www.guaixe.eus

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	13%	5%	8%	18%	5%	10%	18%
Min:	9	9	8	6	5	4	5
Max:	16	16	13	12	12	11	10

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	14.5	2.5	0
Etxarri A.	16.5	-0.7	0.1
Altsasu	17	0.5	0
Aralar	11.3	1.4	0.5
Urbasa	11	-1	2

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
18	25	2	10

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinerako deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA: Artazako kanpinerako deskontua , Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

Ekain berri
Artium
Irurtzun Xota F.S.
Camping Artaza
lacturale
gaztezulo

Atakondoako neska-mutikoak lagunarteko partida jokatu zuten Espainiako Kin-Ball Txapelketaren barruan. M. HUARTE

>>11 galdera

Atakondoa ikastetxeko neska-mutilak

Kin-Ball jokalariak

Testua: Maialen Huarte Arano

1. Noiztik ari zarete kirol hau praktikatzen?
Iaz hasi ginen. Gorputz Heziketako irakasleak, Manuel Iznaolak erakutsi zigun nola jokatzen zen. Hasieran gehien kosta zitzaigun Kin-Ball-aren arauak ulertzea izan zen. Horregatik, Espainiako selekzioko zenbait talde izan ziren Irurtzunen eta eurak jolasean ikusten argiago geratu zitzaizkigun.

2. Nola jolasten da Kin-Ball-era?
Taldeka. Lau kideko taldeak osatu behar dira. Hiru talde aritzen gara partida bakoitzean. Baloi erraldoia da Kin-Ballarena, 122 zentimetroko diametroa du baina pisu gutxikoa da. Talde bakoitzak lortu behar duena da baloia lurrera erori gabe airean mantentzea. Talde bakoitzeko hiru jokalarik baloia eskuekin eusten dute eta laugarren taldekideak jaurtikiz, beste talde bati pasa behar dio baloia, beste taldeari erorarazten saiatuz. "Omniki arroxa" (edo beste talderen baten kolorea) oihukatu behar du baloi jaurtitzaileak baloia bota aurretik. Horrela, beste taldearen txanda denez, prestatu egin behar da baloia lurrera ez erortzen saiatzeko.

3. Nola lortzen dira puntuak?
Baloia lurrera erortzen zaion taldeak ez du punturik jasoko, aldiz, gainerako biek puntu bana lortuko dute. Beraz, ahalik eta indar gehien egin behar da baloia lurrera ez erortzeko. 13 puntu lortzean irabazten da lehen txanda. Guztira hiru jokatzen dira.

4. Taldeak nola osatzen dituzue?
Talde bakoitzeko lau kide gara. Neskak eta mutilak nahastuta jokatzen dugu, baina neskenak edo mutilenak soilik dauden taldeak ere sor daitezke. Beti saiatzen gara talde mistoak izaten.

5. Talde guztia egon behar da jokoan sartuta puntuak lortzeko, ezta?
Bai. Garrantzitsua da taldekideen artean guztiek arretaz jokatzea. Izan ere, taldekideetako batek ez badu baloia eusten, ezin dugu baloia jaurti. Talde lana da Kin-Balla. Gainera, txandakatu egiten gara. Batzuetan baloia eusteko ardura duzu, besteetan jaurtitzekoa.

6. Zergatik gustatzen zaizue Kin-Ball jokoa?
Dibertigarria delako eta lagunekin jolasteko aukera ematen dizulako. Oso joko azkarra da, beti mugimenduan izan behar zara eta tentuz ibili. Kontzentrazioa ere behar da.

7. Noiz aritzen zarete Kin-Ballean?
Eskola orduetan. Gorputz Heziketan aritzen gara jolasten, klaseko lagunekin. Baina noizbait aritu gara ere D eta A eredukoak elkarrekin jolasean, gaur bezala. Zailagoa da ordutegiak ez direlako berdinak, baina eskolaz kanpo aritu garenean denak elkartzen gara.

8. Irurtzunen jokatu da senior mailako Espainiako Kin-Ball Txapelketa. Zuek ere jolastu duzue.
Bai. Oso interesgarria izan da Espainiako beste erkidegoetako jendea jolasten ikustea. Guk horrela badugu aukera ikasteko. Nola aritzen diren beraiek, zein teknikarekin aritzen diren... Gainera gure gurasoak eta lagunak etorri dira gu ikustera. Emozioz aritu gara jolasean, pixka bat urduri ere bai.

9. Estrategiak, beraz, ikasi dituzue?
Kin-Ballean oso garrantzitsua da estrategiaz jokatzea. Gu ikasten ari gara. Baina ikusi dugu adibidez, puntu gehien duen taldeari jaurti behar zaiola ahalik eta gehienetan baloia. Horrela, gainerako bi taldeek puntuak lortuko dituzte eta eurekin puntuetan parekatuko dira.

10. Gustatuko litzaizueke eskolatik kanpo ere jolastea?
Bai. Oso ongi pasatzen dugu eta gero eta gehiago ari gara ikasten. Kirola egiten dugu eta dibertigarria da gainera. Eskolatik kanpo posible balitz gehiagotan jokatzea, animatuko ginateke.

11. Manuel Iznaolak talde bat sortu nahi du. Parte hartuko zenukete?
Asko gustatzen zaio kirol hau Manueli, bai. Eta badakigu sortu nahi duela taldea. Gu prest gaude, ia posible den Irurtzunen talde hori sortzea. Horrela, jende gehiago elkartuko ginateke eta talde berriak sortuko lirateke.